



ARGIA



BIDEOKLIPAK

Irudiak zenbat balio du musikan?

46-49. orrialdeak

#2.871 | 2024/05/19 | 4,00 €



**Gazako kazetariak
Israelen jomugan:
142 hildako**

14 | NET HURBIL



**Hizkuntza gutxituetako
hiztunak, euskaldunon
bidelagun**

32 | EUSKARA



**Horrela joan da
Amillubiren
festa**

46 | KRONIKA

DATORREN ASTEKO ARGIAREKIN...

LARRUN #296
HILABETEKARI MONOGRAFIKOA



GURASOEN PARTE-HARTZEA ERRAZTEN

EUSKARA ETA KULTURARTEKOTASUNA

ARGIA.EUS/LARRUN

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO
HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU



AZALEKO ARGAZKIA: AMORANTEREN BIDEOKLIPA - ARRIGURI

Iritziak

- 21 | ROBER GUTIÉRREZ
- 22 | IRATI ZUBIA
- 23 | MAIALEN ARTEAGA
- 23 | ITXARO BORDA
- 24 | AINGERU EPALTZA

Finkoak

- 40 | BIZI BARATZEA
- 44 | DENBORAREN MAKINA
- 45 | ARGIA KOMUNITATEA
- 50 | DENBORA-PASAK
- 51 | KULTUR-KRITIKAK
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU

SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: CLIPART COURTESY FCI



DOS POR DOS

26 | EUSKARA HIZKUNTZA GUTXIAGOTUETAKO HIZTUNEN BEGIRADATIK

Cira Crespo Gasteizko hainbat herritarrekin bildu da. Afrika, Asia eta Amerikako hizkuntza gutxituetako hiztunak dira eta azaldu dute nola bizi izan duten haien hizkuntza jatorrian, eta nola bizi duten euskara orain herri duten Euskal Herrian.

Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL

Urriaren 7az geroztik, 142 kazetari hil ditu Israelek Gazan: bi egunero kazetari bat

Jenofa Berhokoirigoin

16 | PERTSONAIA | ANNE-MARIE LAGARDE

“Zukak puruki ezabatzen du sexu identitatea eta, hikak, aldiz, eraikitzen”

Miel A. Elustondo

32 | ELIKADURA | LURRA TAUPAKA FESTA

Amillubi martxan da

Estitxu Eizagirre

36 | GIZARTEA

Animalien askapena akademiatik aztertzen

Olaia L. Garaialde

46 | KULTURA | MUSIKA IRUDITAN II

Bideoklipak: aurpegia ala gurutzua

Lander Arretxea

Jabetza

 Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Erredakzioa

 Ainara Rodil, Amaia Lekunberri,
Axier Lopez, Eneritz Arzallus,
Estitxu Eizagirre, Gorka Peñagarikano,
Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner,
Lander Arbelaitz, Leire Artola,
Manex Moreno, Mikel Garcia, Olaia L.
Garaialde, Onintza Irureta, Pello Zubiria,
Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Maitane Gartzandiandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produktzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

Salmenta

Karlos Olasolo, Pello Basurto

Banaketa

Olatz Korta

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Aloña Sorraluze, Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua: SS 837-2012

ISSN: 0213-909X

Batzorde parekidea: 72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoak

 komertzial@argia.eus
komunitatea@argia.eus

Telefonoa

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

 Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

 Ametzagaña taldeko kidea da ARGIA
honako enprekin batera:





Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu,
moldatu, zabaldu eta argitaratu
ditzakezu, gure egiletza aitortu eta
baldintza beretan eginez gero.



Lizentzia hau baliagarria da
testuentzat eta, argazkien eta
ilustrazioen kasuan, ARGIAren
sinadura daramatenentzat soilik.


 Ekoedizioaren Institutuko
bazkide da ARGIA



 EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA


 ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:


EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO


 KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Joe & friends

Palestinarrei erakutsitako mespretxuak, okupatazileari dirutza eta armak emateak, eta sionisten interesak babesteko NBEan beto eskubidea etengabe erabiltzeak sumina piztu du AEBetako langile klasearen artean, gazteen artean nagusiki. 140 bat unibertsitatetan mugarik gabeko kanpaldiak antolatu dituzte boikota sustatzeko. Milaka lagunek gorputza jarri dute sarraskiaren aurrean eta ehunka zauritu eta 2.700 lagun baino gehiago atxilotu dituzte demokraten aginduz. Olatu hori kontinente honetara ere iritsi da, hemen ere gehiengo handi batek genozidioa arbuizatzen duelako. Baina bertako goi-klase politikoak Genocide Joeek jarritako musikarekin dantzan darrai, asteburu honetan bere burua apolitikotzat saltzen duen Eurovisioneko fartsan erakutsi gisan.

 George Washington unibertsitateko kanpaldia hilabete hasieran. Kent N. / Getty Images

 **AXIER LOPEZ**





Berangoko Otxantegi Herri Lurra hustu du Ertzaintzak

ERREDAKZIOA

Ertzaintzak hirugarren saiakera egin zuen maiatzaren 7an Otxantegi Herri Lurra husteko, epaileak hala aginduta. Lurra defendatzera joan ziren hamarnaka lagun, eta teilatuan, lurrean zein dorretxean erresistentzian zeuden guztiak kanporatu zituen Poliziak. Hiru lagun zauritu ziren hustean, Otxantegiko kideek baieztatu dutenez.

Goizeko 8etatik lur horiek defendatzeko hamarnaka lagun elkartu ziren Berangoko (Bizkaia) eremu horretan, gosari herrikoian. Aurrez, beste bi aldiz saiaturik zen Ertzaintza herri lurra husten, baina geldiaraztea lortu zuten, erresistentziarako deiari erantzunez elkartutako jendearen aurrean "nahikoa baliabide" ez zutela esanda bertan behera utzi baitzuen Poliziak hustuketa azaroan eta apirilean.

Ordea, astearte goizean hamabi furgonetarekin eta baliabide andanarekin agertu zen Ertzaintza, Otxantegiko kideek jakinarazi dutenez. Babesa ematera joandako kideak kanporatu zituzten sarreratik lehenik, eta lurra eta dorretxea defendatzen ari zirenak ere bota zituzten. Kanporatzen azkenak izan ziren teilatuan eta sarrerako egurrezko egiturara igota zeuden kideak. Hustea eragozten ari ziren kideak identifikatu zituzten. Pertsona bat atxilotu zuten eta beste bi osasun langileek artatu zituzten, *Hiruka* hedabideak jakitera eman zuzenez; ospitalera eraman zituzten. Otxan-

tegiko kideek ohartarazi dutenez, atxilotutako laguna ere zaurituta zegoen.

Hirukako kazetariak adierazi dute Ertzaintzak ukatu egin zuela husteari buruz barrutik informatzea: "Kazetariak ez digute barrura sartzen utzi gure lana egitera. Kanpotik jarraipena egitera behartu gaituzte".

PROIEKTU AGROEKOLOGIKO KOLEKTIBOA

Bi urtez landu dituzte Otxantegiko lurra modu kolektiboan, baina proiektu agroekologikoaren kontrako agindua eman zuen epaitegiak. Aguirre-Lipperheide familiak Otxantegiko zortzi hektarea nekazal lur saldu nahi ditu Amenabar enpresak etxeak egin ditzan.

Otxantegi Herri Lurra nola sortu zen honela kontatua dute sare sozialetan: "Berangoko Udalak eta Aguirre-Lipperheide familiak urteak daramatzate herri lurra izan behar zirenekin espekulatzen. Horregatik ekin genion Otxantegi Herri Lurra proiektu herrikoari, lurra nekazaritzarako mantendu behar ditugula aldarrikatzeko. Ordutik, oztopo argia gara gutxiengoaren diren aberatsentzat. Lotsarik eta gupidarik gabe, espekulatuzaileek haien interesak 'eskubide' gisa aldarrikatzen dituzte, haien asmoak herritarron interesen aurkakoak diren arren. Horregatik kanporatu nahi gaituzte eurotan soilik neurtzen dituzten lurrotatik". ●

Ertzaintzak herritar bati eraso egin dio Irunen

LANDER ARBELAITZ MITXELENA

Maiatzaren 10ean sare sozialetan zabalduzako bideo batean ikus daiteke nola pertsona bat eztabaidan ari den udaltzain eta ertzain talde batekin. Une batean, ertzainetako batek zartako indartsu batekin lurrera bota du, eta ondoren, lurrean utzita joan dira. Bideoa Irungo San Migel auzoan grabatua da, ARGIAK baieztatu duenez.

Ostiral goizean zabalduzako bideo batean ikus daiteke ertzain batek pertsona bati nola egiten dion eraso. Inor grabatzen ari zela ohartu gabe emandako kolpe gogor batekin lurrera bota du herritarra, "isil zaitez behingoz!" oihu egiten dion bitartean, gaztelaniaz ("¡Cállate ya, coño!"). *Naizek* informatu duenez, udaleko iturriak aipatuz, bideoa "duela zenbait hilabetekoa" da.

Human Rights Foundation aztertzen ari da gertatutakoa fiskaltzan salatzea

Segundo gutxian, bertan zeuden hamar bat udaltzain eta ertzainek alde egin dute autoetan; pertsona hori lurrean botata utzi dute.

ERTZAINZA BIDEOA AZTERTZEN ARI DA

ARGIA harremanetan jarri da Irungo Ertzaintzaren bulegoarekin eta adierazi diote ez dutela adierazpenik egingo, bideoa aztertzen ari direlako. "Ez dakigu bideoa ez noizkoa den ez zer gertatu den, beraz, ez dugu adierazpenik egingo gauzak argitu arte", adierazi diote.

Irungo Udaltzaingoarekin ere harremanetan jarri gara eta ez dute adierazpenik egin.

Nazioarteko Human Rights Foundation-ek adierazi du gertaerak EAeko fiskaltzan salatzea aztertzen ari dela. ●



MATERIALISMO HISTERIKOA

Isilean



UXUE APAOLAZA LARREA

Katalunian ere hauteskundeak izan dira. “Emozioak, pragmatismoa eta xenofobia: Kataluniako hauteskundearen klabeak” titulu zuten *Público* egunkariak. Ezkerra dabil pragmatiko eta kudeatzaile han ere, eta emozioak Junts-i lotuta aipatu zituzten. Baina migratzaileen aurkako diskurtsoa ere puztuta dator, oso bestelako emozioz bada ere. PP, Vox eta Aliança Catalana izan dira migratzaileez aritu direnak. Eskuina, beraz, Katalunian ere.


Migrazioaz eskuinak hitz egiten du, eta ezkerrek, batzuetan, astakeriak atrila kolpatzen dienean-edo, gehienez, erantzun egiten du, bizitza hobe baten bila datorren jende batez, gure zaintza beharrak asetzen dituen, eta RGIaz ari badira, defendatzen dute esanez, hartzaile asko langileak eta pentsiodunak direla... Ezer sakonik ez, izan ere, hauteskundeak diseinatzen dituztenek badakite, ziur, ez geundekeela ados. Zu “ezkertiar”, ni “ezkertiar” ez geundeke ados; asistentzialismoa, integratu behar ditugu, herritar zapalduekin elkartasuna, gure zapalduekin, antolatu eta kalashnikov banarekin etortzen ez direlako eskerrak eman...

Geurean eskuin muturrak ez ditu halako emaitzak: Katalunian 28 eserleku dituzte PP kontuan hartuta. Baina tamainako injustiziek sortzen dituzten sumindurak ez ikusteak, hauteskundeetan gaia aipatu ere ez egiteak ia, urduri jartzen du. Hasten bada alderdiren bat esaten euskara arriskuan, gure gaztetxoak parrandan, gure emakumeak... ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



Errausketa

Zubietako erraustegi inguruan laginak biltzen bost urte daramatza ToxicWatch fundazioak, metal astunen, dioxinen, PCBen eta PFASen bila. Kutsaduraren “igoera kezagarria” aurkitu dutela jakinarazi du Errausketaren Aurkako Mugimenduak. Maiatzaren 18rako martxa deitu dute.

Kartzela

Beste preso bat hil da espetxean, Basaurin. Maiatzaren 3an aurkitu zuten hilotz, “gaindosi” zantzuekin, baina Jaurlaritzak ez du heriotza baieztatu 7ra arte, eta autopsiaren emaitzen zain dagoela adierazi du. EAEko espetxeen eskumena hartu zuenetik espetxean hiltzen den bosgarren preso da.

Euskara

Azterketak euskaraz pasatzearen aldeko mobilizazio eguna antolatu dute Euskal Herri osorako. Elkarretaratzeak, manifestazioak, bide blokeoak, une zaratatsuak, kalejirak... bakoitzak bere modura, horra maiatzaren 17rako Bernat Etxepare lizeoko ikasleek irudikatu duten ekimen berria.

Lekukotasuna



ULA IRURETAGOIENA

Non dago auzoa lekututa? Galdeztzen du irudiak. Gure testuinguru eraikiak hartu duen deribagatik, irudian ikusten duguna aldirietako auzo berri bat izan ezean, kasu gehienetan ez dugu irudian identifikagarritzat jo dezakegun ezer topatuko. Tranpa batean sartu gaitu, erantzuna Zarautz edo Mungia izan baitaiteke. Auzo berri asko eraikuntza mota baten errepikakortasunarekin osatzen dira, enpresa eraikitzaile batek garatzen du eta arkitekto bakar batekin burutzen du. Beste herri batean, auzo berriko garapena enpresa eraikitzaile berdinak egitea lortzen du, lehiaketa publikoz edo sustatzaile pribatuaren konfiantzagatik, eta enpresak arkitekto berarekin akordatzeko duen jokaldia egitea, eta arkitektoak auzo eredu berdina errepikatzea erabakitzen du. Errepikakortasuna etxe eredian, portalaren diseinuan, fatxadaren osaketan, eraikinaren material eta kolorean, eraikinekin osatzen duten plazatxoaren altzarietan. Emaiza: paisaia urbano-eraiki monotono bat, arkitektura-frankizia bilakatua. Ez dezagun pentsa eraikitzaile eta arkitektoen marka-irudi bat sortzeko nahia dagoenik edo ezin-hobegarrria-den-auzo baten eredu-sinesmen bat dagoenik. Sikiera errepikatzen den eredia ona eta ederra izango balitz...

Paisaia urbanoaren kalitatea kualifikatzen hasiko bagina, lekukotasunak berebiziko garrantzia izango luke. Testuinguruari kasu egitean, eraikin berrien osaketak inguruan dagoeneko dauden elementuekin elkarrizketa bat osatuko litzateke. Elkarrizketa pentsatzeko metodoa errepikakorra izan daiteke, baina emaitza propio bat ekarriko luke. Zenbat herri eta hirietatik (oinez) orientatzeko lekukotasunari begiratzen diogun; lehen planoan dauden elementuak (denda bat, kalearen keinu berezitasun bat) eta urrutiko planoak (zuhaitzen kopak, mendi tontorra, horizontea). Sentsorialitatea afinatzean eguzkiaren isla eraikinean edo material konbinaketaren bibrazioak jaso eta pertzepzio aberastasun honekin lekuari sustraitzeko elementuak ditugu, berau identifikagarria eginaz. ●

Negu gorri, hondamendia iragarri

🔗 GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA

Apirilaren 30ean, Espainiako patronala den CEOEk argazki horixe zintzilikatu zuen sareetan: ezkerrean dago Antonio Garamendi, CEOeko presidentea den Getxoko semea; eta eskuinean Alfonso Santiago bilbotarra, musika festibalen munduan dabilen Last Tour promotorako burua, Eusko Jaurlaritzaren menpeko den Kulturaren Euskal Kontseiluko kide izandakoa. Maiatzaren Lehenaren atarian jakinarazi zuten CEOEn sartu dela langileak baldintza prekarioetan jardutera kondenatzen dituen enpresa, hainbatetan salatu denez.

Datu gehiago. Last Tourrek urtean 100 milioi euroko fakturazioa egiten du – Bizkaian fakturatzen du, eta bat baino gehiago asetuko horrek-. BBK Live, Azkena Rock, BIME, Santaspascuas, BilboRock eta beste hainbat festival eta ekintzatzar antolatzen ditu, Bilbon jatetxe bat eta mila metro karratuko areto bat dauzka, Oso Polita disko-zigilua, Liburuak deituriko editoriala... eta izen arrotz batzuen pean egiten dituen beste hainbat negozio ere bai. Euskaraz, lau tanta. Eta erdizka: “Sarrerak *emen erosi*” ikusi diogun azkena.

Espekulatzaile handia da Last Tour, eta ez du bakarrik jarduten, ez da pribatu-pribatua; makrofestibalen eredu hori bultzatzen duten gobernuen eta instituzioen erabateko babesa du: milaka eta milaka euro urtean, baliabideak erraztu eta promozioan lagundu. Ez da inolako txikikeria.

Interesgarria da J Martina taldekoei Iñigo Astizek *Berria*-n egin dien elkarrizketa –titularrera ekarritako esaldia, hain justu, industria musikariari zuzentzen zaion beraien kantu batetik ateratakoa da-. Honela dio Kattalin Barcenak elkarrizketan: “Zirkuitu alternatibo guztiak izorratzen ari dira [Last Tourrekoak]. Jendea esplotatzen dabilta. Industria guztiz ustel bat ari dira lurreratzen Euskal Herrian. Dena monopolizatzen ari dira, bai musikariak eta bai zirkuituak. Benetan da munstro bat”. Eta honela segitzen du: “Guk bakarrik ezin diogu horri aurre egin. Hautu pertsonaletan geratzea ez da nahikoa, eta guk, J Martinak, esatea ez dugula BBK Liven joko, ondo dago, eta eskatu digute eta ez dugu jo, baina, horretaz aparte, ezin dugu ezezko posizio hutsean geratu. Horregatik, gure hautua da zirkuitu berriak potentzialki sortzea”.

Badira bi bide irekitzen direnak, eta ez zertan kontrajarriak. Bata, eta konfrontazioa eragingo lukeena, eredu esplotatzaileko makrofestibaletan parte hartzen duten musikariak seinalatzea –Urzelaik eta Cruzek emandako hitzaldi batean publiko artetik ateratzen galdera/idea da-. Eta bestea, Barcenaren hitzei segika, beste antolakuntza eredu baterako hautua egitea. Krisi orok zabaltzen du gogoetarako parada.

Argazki horrekin, horrela da hondamendia iragartzen. Eta, premia, hausnarketak bizkortzea besterik ez da tokatzen. ●



54

urteko espetxe eskaera egin du AVT biktimen elkarteak Oihana Garmendia, Haimar Altuna, Oihana San Vicente, Carlos Saez de Egilaz, Felipe San Epifanio eta Antton Lopezen aurka (bederatzina urteko eskaera), presoengatik etorriak antolatzea egotzita.

28

ikastetxe-ingurune aztertu dituzte Euskal Herrian: 28ek Osasunaren Mundu Erakundeak segurutzat duen kutsadura maila baino kutsadura handiagoa dute eta %75ak ez du lortzen Europako Batzordeak berak onargarritzat duen kutsadura maila.

109

milioi euroko etekinak izan ditu Eroskik 2023an, aurreko urtean baino %70 gehiago. Espainiako Estatuan 74 supermerkatu eta frankizia gehiago ireki zituen iaz.



“Portuak zabortegeiak dira. Itsasontzietatik dena botatzen da portura”

AIXA BARBARIN LOPEZ
Urpeko arkeologoa.
ELHUYAR (2A024-05-03)

“NAFARROAN, EUSKARAZ IKASTEKO ESKUBIDEA UKATZEN DA, BEHIN ETA BERRIZ”

IRUÑEKO EUSKALGINTZA PLATAFORMA

Iruñean dauden hamasei haurreskoletatik murgiltze eredu bakarrean eskaintzen dela-eta, auzo bakoitzean murgiltze ereduko haurreskola bana irekitzeko eskatu dute.

2024-05-10

“Ez elektroshockik, ez euste mekanikorik, ez medikaziorik... Biolentzia psikiatrikoa bertan behera uztea eskatzen dugu”

HEIKO ELBIRA

Estatuko Harro Zoro Erradikalen manifestazioa Bilbon egingo da lehen aldiz, maiatzaren 25ean.

ARGIA.EUS (2024-05-07)



Materialtasunaz



DIANA FRANCO

"Ez daukanak ongi ohi daki edukitzea zein den ona" (Mikel Laboa, *Izarren hautsa*). Ni hazi nintzen garaian eta herrian, orokorrean, gurasoek eta irakasleek haur eta gazteek izan behar zituzten bizitza ibilbideen inguruan ideia nahiko zehatza zuten. Bizitza on bat izateko lerro zuzen bat jarraitu zitekeen ilusioz bizi ginen. Bizitza on bat izateko, garai hartan, ez zen asko behar, espektatibak oso xumeak ziren. Egungo guraso eta irakasleentzako ortzi-muga ez da hain gardena, arrakasta izateko haur eta gazteek behar dutena gehiago da, egonkortasunaren ilusioa desegin da eta mundu zorrotz, konplexu eta aldakor baten baitan bizi eta hazi behar ditugu haur eta gazteak.

Horiek dira, besteak beste, gobernuek hezkuntza sistemetan STEAM metodologia sustatzeko apustuaren arrazoi. Zientzia, Teknologia, Ingeniaritza, Arte eta Matematika ezagutzak metodologia aktiboen bitartez hezkuntza sistemetan txertatuz, nolabait, hezkuntza espazioa errealtatearen laborategi bilakatzea da helburua. Akronimo hori 2012an entzun nuen lehen aldiz, Bilboko Summer of Labs topaketan Paola Guimerans artistaren ahotan, garai hartan Amerikako Estatu Batuetan hezkuntza eta teknologiaren inguruan proiektu eta ikasketetan zegoena. Handik hona asko aldatu da mundua, eta STEAM metodologiak indarra hartu du, baina nora garamatza? Nire ustetan, esplorazio etapa batean gaude oraindik, eta ez dugu oso argi nora eramango gaituen, hau da, zein eraldaketa ekarriko dituen hezkuntza sisteman, eta zein onura haur eta gazteen etorkizunetan. Materialtasun berrien beharra eskatuko du STEAM metodologiak: espazioak, ezagutzak, tresnak, gaitasunak, harremanak... Behin horiek izanda, zelan eta zertarako erabiliko dugu STEAM metodologia? Haur eta gazteak mundu aldakor eta konplexu honetara egokituiko diren piezak bilakatzeko? Ala haur eta gazteei munduari forma emateko baliabideak eskaintzeko? ●

Hiru itun zail Kataluniako Generalitateko presidente izateko

✍️ JESÚS RODRÍGUEZ | LA DIRECTA

Duela urte gutxi ezinezkoak ziruditen eszenatokiak erreal bihurtu dira igandean, Kataluniako Parlamentuko hauteskondeen ondorioz. Gehiengo independentistaren galera: Junts, ERC eta CUP alderdien batura 74 diputatutik 59ra igaro da. Ezkertiarren beherakada: ERC, CUP eta Comunen batura 50etik 30era pasa da. Espainolismo ultraren igoera handia: 14tik 26ra igo dira PP eta Vox. Eta, azkenik, lehen aldiz sartu da hemiziklora alderdi independentista eta xenofoboa bat, Aliantza Katalana bi eserlekurekin.

Maiatzaren 12ak irabazle argia utzi du, Salvador Illa (PSC), 42 eserlekurekin. Baina hauteskunde-aritmetika deabruak eta alderdi politikoek egin dezaketen emaitzen kudeaketak zalantza betetako etorkizuna marraztu dute. Epe laburrean ez da akordiorik aurreikusten, hamar egunetan Europako hauteskondeen kanpaina hasiko baita, eta maiatzaren 30ean Espainiako Kongresuaren osoko bilkura izango da, Amnistia Legearen behin betiko onarpena bozkatu behar duena. Aliantza posible guztiek *handicap* zailak dituzte.

Pere Aragonès presidentearen hitzek, errepublikanoen "oso emaitza txarrak" baieztatu ondoren (33tik 20ra jaitsita), pentsarazten dute ez dutela babestuko Illaren eta Carles Puigdemonten presidentetza: "Gure proiektu politikoarekin jarraitu ko dugu, oposiziotik". Argelers udalerritik, Ipar Kataluniatik, Puigdemontek (Junts) argi utzi du bere 35 eserlekuek ez dutela balioko PSCrekin ituna egiteko, pilota ERCren teilatura jaurti eta ez du baztertu hauteskunde berriak egitea: "Garaiz gaude obediencia soilik katalana duen gobernu sendoa eraikitzeko. Garaiz gabiltza hauteskondeen errepikapena saihesteko". Eta ez du galdu hurrengo egunetan gorpuztu daitekeen ideia bat nabarmentzeko aukera: Junts eta PSCren arteko distantzia ez da PP eta PSOE Espainiako Kongresuan banatzen dituen baina handiagoa. PSOEri Gene-

ralitatean Juntsen gobernu bat onar dezan exijitzea planteatzen ari al da Puigdemont, Madrilen Pedro Sánchezen egonkortasuna bermatzearen truke?

Ezkerrak oso ahulduta geratu dira orokorrean (30 diputatu orotara, ERCkoak, CUPEko 4ak eta Comunen 6ak batura), eta gobernu osaketari dagokionez, beti egongo dira ardatz sozialean eskuinerago dauden alderdien menpe. Laia Estrada CUPEko zerrendaburuak honela baloratu du: "Ez dugu emaitza onik lortu eta panorama kezagarria da, inoiz baino eskuindar eta espainolista goa da parlamentua". Jéssica Albiachek, Comunitatik, itxaropena mantendu du eta Illak zuzendutako ezkerreko gobernu posible ikusi: "Eskuinaren eta eskuin muturraren gorakadaren aurrean, herri honetako aurrerakoiek espero dute behar eseri eta ados jarri gaitzen".

ULTREN ARTEKO TRUKATZEA

Silvia Orriols ultraeskuindarrak (Aliantza Katalana) aitortu du ez duela botererik izango, baina, adierazi du, "orain nahi eta behar genuen bozgorailua dugu, lortu ditugun 118.000 botoei esker". Ripolleko alkate ere badenak, alderdiko barne arauak urratuz, karguak bikoiztu eta diputatu akta izango du. Gauza bera egingo du Lleidako zerrendaburuak.

Ciudadans, 2017an milioi bat boto lortu eta hauteskundeak irabazi zituen alderdia, PACMAren atzetik geratu da, 22.481 botorekin. Prentsa agerraldi surrealista batean, Carlos Carrizosak, Voxek edo PPK oraindik fitxatu ez dituzten alderdiko zuzendaritzako kide apurrekin batera, hurrengo hauteskundeetara aurkeztuko direla iragarri du. Alderdien egungo estatu zuzendaritzak, baina, bere esku du parodia ixtea eta alderdia behin betiko amaitzea, Galizian, Euskadin eta Katalunian izandako porroten ondoren, baina, batez ere, IBEX-35aren finantza-babesa galdu duelako.

Negoiazioak blokeatzen badira eta hauteskundeak berriro eginez gero, li-tekeena da urriaren erdialdean izatea. ●

Kanpaldien lehen garaipenak iristen hasi dira Israelekiko boikot akordioekin

 JON HIDALGO GEREÑU

Besteak beste, Bartzelonako Unibertsitateko klaustroak Israelekin harreman instituzionalak etetearen alde bozkatu du. Dublingo Trinity College ikasle mobilizatuak akordio batera heldu da Israelekin “harremana hausteko norabidean lan egiteko”. Ikasle Abertzaleak EHU eta NUPEko errektoreei exijitu diete estatu sionistarekin harremana eteteko.

Mundu osoko ikasleek Palestinaren alde abiatutako mobilizazio uholdeak fruituak ematen jarraitzen du hainbat lekutan. Iturri ugari baiezatu dute asteazkenean Bartzelonako Unibertsitatearen (UB) klaustroak Israelekin harremana apurtzea onartu duela. Ezohiko mozioaren alde bozkatu dute 59 kidek, 23k aurka eta 37 abstentzio izan dira. Ikasleek Palestinaren aldeko kanpaldia abiatu ondotik etorri da erabakia, baina ez da behin-betikoa, unibertsitatearen zuzendaritzak erabaki behar duelako orain klaustroaren bozketari buruz. Neurriak Israelgo ikastetxe, ikerketa gune, enpresa eta bestelako erakundeei eragingo lieke. Benjamin Netanyahuaren aurkako presio mekanismo gisa onartu du klaustroak, “genozidioa gelditu eta apartheid eta kolonizazio sistema ezabatu” arte.

Irlandan, Dublingo Trinity Collegeko ikasleek ere “garaipen partzial” bat lortu dute, astebeteko kanpaldia egin eta gero. Unibertsitateak adierazi du prozesu bat abiatu duela loturak hausteko Palestinako Lurralde Okupatueta jarduerak dituzten eta NBERen “zerrenda beltzean” agertzen diren enpresekin, BBCk jakinarazi duenez. Ikasleek protestekin jarraituko dutela esan dute beren eskakizun guztiak bete arte. Unibertsitateak lantalde bat jarri du martxan, ikasleen ordezkariak ere izango duena, erabakitzeke zer harreman izango duten “giza eskubideak urratzen dituzten herrialdeekin”.

HEGO EUSKAL HERRIAN ERE KANPALDIAK

Maiatzaren 6an abiatu zituzten kanpaldia Hego Euskal Herriko hiriburueta-



ko unibertsitate publikoetako campusetan, Ikasle Abertzaleak-ek deituta, eta beste antolakunde batzuen babesarekin, eta besteren artean, Ernaik edo Astinduk bat egin dute deialdiarekin. Ikasle Abertzaleak antolakundeak EHU eta NUPEko errektoreei exijitu die Israelekin duten harreman oro eten dezatela. NUPEko errektoretzari Israel publikoki kondenatu dezala ere exijitu diote. Astelehenetik kanpaldia izan dira Hego Euskal Herriko unibertsitateetan, eta ehunka ikasle bat egin dute protestekin. Datozen egunetarako egitarauak antolatu dituzte mobilizatutako ikasleek.

Bartzelonako Unibertsitatearen klaustroak Israelekin harremana apurtzea onartu du, “genozidioa gelditu eta apartheid eta kolonizazio sistema ezabatu” arte

Ikasle Abertzaleek salatu dutenez, EHUK esan bazuen ere Israelgo unibertsitate sionistekin harremanak hautsiko zituela, “errealitatea guztiz bestelakoa” da. Israelen konplize diren enprekin ere hausteko eskatu dute. HP, AXA eta CAF enpresak aipatu ditu IAk sionismoaren kolaboratzaile gisa. Ohartarazi dute HP enpresak Israelek Palestinan ezarritako checkpoint-etan erabiltzen den teknologia militarra garatzen duela, AXA inbertitzailea dela armamentu enpresetan eta kolonizazioan parte hartzen duten bankuetan eta CAF euskal enpresa Palestinako legez kanpoko kolonietatik igarotzen den trenbide azpiegitura eraikitzen ari dela.

LANUZTEAK EUSKAL IKASTETXEETAN

Ikama ikasle antolakundeak deituta, lanuzteak izan dira maiatzaren 13an, *Ikasleok Palestinarekin, genozidioa gelditu* lelopean. Hego Euskal Herriko campusetan antolatu diren kanpaldiekin bat egin zuen Ikamak, baina “pauso bat gehiago” emateko beharra ikusi dute, eta dei egin diote euskal hezkuntza komunitateari lanuzteak egitera eta antolatu dituzten mobilizazioekin bat egitera. ●

URRIAREN 7AZ GEROZTIK, 142 KAZETARI HIL DITU ISRAELEK GAZAN: BI EGUNERO KAZETARI BAT

Gerra garaian zentsurak eta propagandak berebiziko lekua hartzen dutela jakina da, eta horren froga bat gehiago dugu Israelek Gazan bideraturikoa. Hala ere, prentsa askatasunaren alde dabilzan egiturak izugarri kezkatuak dira: ez da munduan eta historian zehar beste gatazkarik hainbesteraino dituen kazetariak jomugan. Kazetarien Babeserako Batzordeak edota Mugarik gabeko Erreportariak erakundeek argi dute: Israelek nahitara hiltzen ditu palestinar kazetariak. Gazan gertatzen denaren berri hartzeko leihokak ditugu, alta, jakinik nazioarteko kazetariei bertaratzea debekaturik diela Israelek.

JENOFA BERTHOKOIRIGOIN

Ehun eta berrogeita bi. Horra urriaren 7az geroztik Israelek Gazan hildako kazetarien kopurua, Komunikabideen Bulegoa egituraren kontaketa segi. Mundu mailan, kazetari izateagatik hildakoen %73ak Gazakoak ziren 2023an –gainera, urteko azken hiru hilabeteetan metaturik, hau da, urritik urtarrilerako tarteari begiratzerakoan kasik 100% dira Israelek hildakoak-. Mustafa Ayyad gaztea da zerrendako azkena, fotokazetaria, maiatzaren 7an Tsahal armadaren drone batek hildakoa Gaza hirian.

Bezperan, Israelen baitako kazetaritza zuen kolpatu Benjamin Netanyahu, Al-Jazeera komunikabide qatartarrak bertan dituen erredakzio bulegoak hetsiz eta material guztia lapurtuz. Hamasen tresna delakoan

eta "segurtasuna arriskuan jartzen" duelakoan bozkatu zuen aho batez zentsuraren alde gobernuak. Gainera, Al-Jazeeraren telebista ala webgunea ere moztu dizkiete israeldarrei.

Erabaki horren larritasuna salatu du Walid Amari Al-Jazeerako Jerusalemeko eta Ramallahko buruak: "Politikoa da, Netanyahu Lehen ministroa eta bere eskuin-muturreko gobernu etengabe dabilza haien hautesle goaren oinarria sendotu nahian. Erabaki hori biziki arriskutsua da. Ezin du Israelek alde batetik erran demokrazia bat dela eta bestetik, kazetariei beren lana egitea debekatu". RSF Mugarik Gabeko Erreportariak erakundeak ere gogorki kritikatu ditu Al-Jazeeraren "zentsura" eta "kazetarien kontrako difamaziozko adierazpenak". RSFko

ordezkari Jonathan Dagherrek argi utzi du: "RSFk Israelgo agintariei eskatzen die Al-Jazeeraren aurkako eraso bortitza bertan behera uzteko. Zentsura-erabaki horrek, arau demokratikoen aitzakiaren pean harturikoak eta inplizituki komunikabide bati zuzendurikoak, aurrekari larria sortzen du Israelgo kazetaritzarentzat".

Urriaren 7az geroztik, 50 bat eraso bideratu ditu Tsahal armadak Al-Jazeeraren kontra eta hildako 142 kazetarien artean behintzat hiru zebiltzan komunikabide horrentzat lanean. Errepresio horren sinbolo bihurtu zaigu Wael Al-Dahduh kazetaria. Errepresio horren ikur, baita palestinarren erresistentzia eta erresilientziarena. Urriaren 25ean hil zituzten bere andre eta bi haurrak, baita beste



ANADOLU. A. ZAGOUT

KAZETARIAK JOMUGAN

Gazako Zerrendatik ezin aterata, bonben azpian hiltzen eta bizirauten dabiltzan honetan, munduari masakre horren berri ematea da bertako kazetarien helburu bakarra. Beren bizia baita senideena ere arriskuan jarriz dabilta horretan.

zortzi senide ere, eta zuzenezko albis-tegintzan zebilela jakin zuen drama. Penak itorik, negarra begian baina zut, segitu zuen kamara aitzinetik mundua informatzen. Biharamunean ere, hor segitu zuen mikrofonoa eskuan. Abenduaren 15ean, berriz ere jomugan hartu eta kolpatu zuten, berekin zebilen Samer Abu Daqa kameraria hilez. Ondoko mezua zabaldu zuen Al-Jazeera agiri bidez: "Gazako kazetari taldeak, eta partikularki Wael eta Samerek, sekulako lana egiten dute Israelen izugarrikerien eta suntsiketen berri emateko. Beren arduratasun eta engaiamendu hori gabe munduak ez luke Gazako ankerkerien berri ukango". Urtarrilaren 7an, bere semea hil zuten, Hamza izenekoa, bera ere kazetari lanean zebilena. Urtarrilaren 16an

**Urriaren 7az geroztik,
50 bat eraso bideratu
ditu Tsahal armadak
Al-Jazeeraren kontra
eta Gazan hildako 142
kazetarien artean
behintzat hiru zebiltzan
komunikabide horrentzat
lanean**

utzi behar izan zuen Gaza, Qatarren artatua izateko, eta ondoko mezua luzatu zion munduari: "Joatea erabaki dut. Barka nazazue. Espero dut laster berriz hemen egotea".

Baina, kazetariak kikiltzeko xedeaz gain, geopolitikoki eragiteko asmoa ere gordetzen da Al-Jazeera hesteko erabakian. Hain zuzen, urrats horrek Qatarren eta Israelen arteko harremanak are gehiago ozpinduko zituela bazekien arras ongi Netanyahu. Qatar dabil mediatzaile lanean Hamas eta Israelen arteko negoziaketetan, eta Hamasen alde kokatzea leporatu izan dio Tel-Avivek Dohari; azken honen haserrea are gehiago puztu du horrek.

"[Gazan dabiltzan] kazetariak preziorik altuena –beren bizitza– ordaintzen dabilta, egia jasotzeko dugun

eskubidea defendatzeko. Kazetari bat hiltzen edo zauritzen den bakoitzean, egia horren zati bat galtzen dugu", dio Kazetarien Babeserako Batzordeko zuzendari Carlos Martínez de la Sernak.

“[Gazako kazetariak] preziarik altuena –bizitza– ordaintzen dabilta, egia jasotzeko dugun eskubidea defendatzeko. Kazetari bat hiltzen edo zauritzen den bakoitzean, egia horren zati bat galtzen dugu”
Carlos Martínez de la Serna

PALESTINAR KAZETARIEI ESKERRAK

Urriaren 7az geroztik Gazan eta Libano hegoaldean hildako kazetariei buruzko txostena plazaratu du *Mediart* komunikabideak, zenbaki hotz horien gibelean gordetzen diren biziez gehiago jakin nahian. Hasteko, Gazatik informatzen dabilzan kazetari bakarrak palestinarrek dira, ez da nazioartekorik bertan, edo diren bakarrak Israelek baimendurikoak dira eta Tshaleko soldaduen ondoan dabilta. Ondokoa irakurri daiteke txostenean: "Baldintza apokaliptikoetan dabilta lanean, bonben azpian eta erabateko blokeo batean, beren eta senideen bizia galtzeko beldurrarekin. Berentzat, kazetaritza ez da bakarrik lan bat, bokazio bat, engaiamendu bat. Munduari masakre horren berri emateko eta indiferentziarekin bukatzeko azken arma dute kazetaritza. Horregatik dute hainbeste gazte palestinarrek kazetari bihurtu nahi, haien herriak pairatzen duenaz informatzeko mundua".

Ikerketa hori bideratzeko zailtasunak ukan izana ohartarazten du *Mediart*-ek: "Nola jaso [hildako kazetariaren] bizia, kasik bere familia osoa delarik bonbaren pean desagertu eta ez delarik gehiago inor kontatzeko? Nola jarri hurbilekoekin harremanean Gazako komunikazio kanalak erregularki moztuak direnean?". Hori horre-



SARE SOZIALAK

MUSTAFA AYYAD Fotokazetari gisa ari zen mundua informatzen eta bizia kendu zion Israelek maiatzaren 7an. Urriaren 7az geroztik, Gazan hildako 142 kazetarien zerrendan azkena, lerro hauek idazterakoan.

la, sare sozialetan zabalduriko dolu eta eskertza mezuak ere hartu dituzte oinarritzat.

Komunikazioaren erritmo frenetikoaren erdian, hildako kazetari palestinar horiek gogoan atxikitzeke iniziatibak kausitu ditzakegu han ala hemen. Horien artean dugu, demagun, iMedD

Lab webguneak sorturiko Gazako mapa, zeinetan ageri diren kazetarien hilketen gune zehatzak eta bakoitzarentzako bildu informazioak.

Azken zazpi hilabeteetako jokaririk aurrekaririk ez badu ere, Israelek beti izan ditu palestinar kazetariak jomugan. 2000tik 2022ra hogeitaz kazetari



AL-JAZEERA ISILARAZIZ Komunikabide qatarrak Israelen dituen bulegoak itxi zituzten maiatzaren 6an, Netanyahuen gobernuak aho batez hori erabakirik. Gainera, Al-Jazeeraren telebistarako eta webgunerako bideak ere blokeatu dizkiete israeldarrei. RSF erakundeak gogorki salatu du zentsura.

hil zituen –hamahiru Gazan eta beste zazpiak Zisjordanian–. Luzaz hilketa horien kontaktetan arituriko Bilal Jaddallah Prentsaren Etxe Palestinarren zuzendari izandakoari ere bizia kendu zion Tshahlek azaroaren 19an.

Hori horrela eta hildakoen zerrenda izugarriki emendatuz doala, Israelen aurkako salaketa jarri du RSFk Nazioarteko Zigor Auzitegian, Gazako kazetari palestinarren aurkako gerra krimena leporaturik. Berez, NBEaren

ebazpen batek kazetarien babestera behartzen dituelako bere kideak. Baina, eragin guti du auzibide horrek ere, jakinda ez dela lehena: 2018az geroztik Gazarako aurkezten den hirugarrena da. Al-Jazeerak ere jarri zuen Israelen aurkako 2022an, Shirin Abu Akleh kazetariaren hilketaren harira.

Hilketez gain, palestinar kazetariak isilarazteko beste bideak ere baliatzen ditu Israeliek: 30 bat ditu preso, eta beste hamarnaka ditu torturatu.

RSF erakundearen azken txostenaren arabera, preso diren munduko kazetarien %7 Israeleko kartzeletan dira, eta adierazpen askatasuna urratzen duten estatuen sailkapenean, Txina, Birmania, Bielorrusia, Errusia eta Viet Namen ondotik kokatzen da Israel, 6/195ko postuan. Horrela bukatzen da *Mediapart*-en erreportajea: "Kazetarientzako seigarren kartzelarik handiena da Israel eta kazetaritzaren hilibigilea ere da Gazan". ●




ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

zinkunegioptika.com



Anne-Marie Lagarde

MATRIARKATUAZ (ETA BIZIAZ)



ZUKAK PURUKI EZABATZEN DU SEXU IDENTITATEA ETA, HIKAK, ALDIZ, ERAIKITZEN



Matriarkatuaz doktore tesia egina da Anne-Marie Lagarde eta, gurean, gaiari buruzko espezialista egina da. Batean prima, bestean kadet, gure herrietako matriarkatua zertan zen deskribatu eta interpretatu digu, munduan diren formula matriarkalen berri emanez, eta bere historia pertsonal harrigarria abiaburu harturik.

 MIEL. A. ELUSTONDO  ZALDI ERO / ARGIA CC BY-SA

Zer diozu, akulturatua zarela? Akulturazioa da geurea ez dugun kulturaz jabetzea, geurearen kaltetan. Zu, akulturatua?

Bai, hala naiz, oso akulturatua... Gaizki mintzatzen dut euskaraz, ez ditut aditzak ontsa menperatzen, huts anitz egiten dut... Badakit, bai! Behin, ene ttanttak erran zidan: "O, nik pentsatzen nuen zu gau-eskolarat joanik izigarri ontsa mintzatuko zenuela euskara, baina zinez gaizki mintzatzen duzu!". Eta beste behin, Atharratzen, Maddi haur ttipiak ere hori bera erran zuen. Euskaraz mintzatzen ari ginen, eta erran zien aita-amei ene aitzinean: "Ninek -ene haur denborako izena duzu 'Nine', eta Zuberoan oraino hala naiz-, zinez po-

rrokatzen duzu euskara!". Hori erran zuen lau urteko Maddik: "Ninek zinez porrokatzen duzu euskara!".

Errateko manera pollita, baina oker errana, ene ustez.

Euskara irakurtzen dut, baina enetako aisago da lan bat irakurtzea antropologiaz edo linguistikaz, eleberri bat irakurtzea baino: aisa galtzen naiz metafora eta gisakoen artean. Denbora anitz behar dut nobela bat irakurtzeko. Amaiur Epherren liburua [*Profeten iruzurra*, Maiatz, 2021] irakurri dut. Zinez ontsa idazten du Amaiurrek, baina denbora anitz eman dut haren liburua irakurtzen! Baizik, Maddi Anne Txopenaren *Ene baitan bizi da* zalu irakurri

dut... Bestalde, egunkaria irakurtzeko ere badut traba anitz, zenbait aldiz ez dut batere entelegatzen, behar dut joan hiztegiaren xerka! Hortakotz erraiten dut akulturatua naizela! Badut sentimendu handia Euskal Herriarendako, euskararendako, baina ez dut euskal kultura bat ukan ahal. Akulturatua!

Zuberoan sortua zaitugu...

Liginagan, Atharratze gainean. Ezagutzen duzu lekua?

Han sortu zen Dominique Laxalt, AEBetako Robert Laxalt idazle famatuaren aita...

Liginaga ondoko Astuen sortuak, laxaltarrak! Ameriketarat joanak.



Anne-Marie Lagarde

LIGINAGA, 1944



Frantses irakasle izan du ofizio. 50 urte zituela, berriz, Euskal Ikasketak ere egin ordurako Baionako unibertsitate campusean, euskal matriarkatuari buruzko doktore tesia egin zuen 2000. urtean, eta laburturik argitaratu hiru urte geroago: *Les Basques, société traditionnelle et symétrie des sexes*. Hurrena, *Le matriarcat basque* (Arteaz, 2002) idatzi zuen. Baditu bi eleberri idatzirik. Lehena, *Nine Goihenetxe* izenez sinatu zuen, *Eguzki amandrea* (Maiatz, 2004) –Jüje Etxebarnek euskarara itzulirik–, eta nobela hunkigarri bat, autobiografia oinarri, *Au chemin de Maia* (L'Harmattan, 2019) gure hizkuntzara ekartzea merezi duena. Euskara Pariseko metroko bide bihurrietan galdua, Maulen berreskuratu zuen, nola berreskuratua baitute alabak eta bi arrasemeek, eta –“amiñi bat”–, semeak.

Liginagan sortua zu, ez zizuten euskara transmititu?

Bai, baina zinez goizez galdu nuen. Kasualitatez sortu nintzen Liginagan, aita eta ama bizi baitziren Pauen, ez-kondurik. Ene aita biarnesa zen. Aita-amak 1942an ezkondu ziren, iragan mendean. Aita jokalaria zen –poker eta abar –, eta eztei-egunean jendarmeak jin ziren ene aita arrestatzeko. Aitak bazuen ofizio on bat, Paueko hegazkin lantegiaren administrazio zuzendaria zen eta, ama, berriz, idazkari. Baina jokalaria baitzen, aitak zorrak egin zituen, eta, bere lanarengatik, [lantegiko] kutxatik sosa hartu ahal zuen. Horrela, eztei-egunean jendarmeak jin zitzaizkion arrestatzera. Baina ene axaitak eta amaren kusi batek zorra pagatu zuten, eta ez zuten arrestatu.

Jokoa ez da errenta, diote.

Zinez ez da! Baina aita jarraiki zen jokalaria izaten. Ama ez zen kontent, zeren bazuen erresponzabilitate anitz lanean. Ez dakit aitak zer gezur erra-ten zion amari, baina badakit ama zazpi hilabeteko izorra zelarik, aita berriz arrestaturik izan zela, eta lau hilabete eman zituela presondegian. Oro hartu zion amari, zorra pagatzeko. Kolpe handi bat izan zen harentzat, eta hortakotz joan zen Liginagako sorlekura, Goihenetxera, eta hortakotz sortu ninduzun ni Liginagan, anartean. Irakurtzen duzu frantsesa aisa?... Idatzi dut liburu bat duela lau urte-edo, kontatzen dut amiñi bat ene historia [*Au chemin de Maia*], baina ez dut nahi zuri denbora galarazi ene liburu hori irakurtzen...

Gogo onez irakurriko dizut. Eta etxeko egoerak nola eragin du zure bizian?

Sorlekuan egon ginen sei urte. Eskolako lehen urtea –bost urte nituelarik–, Liginagan egin nuen. Geroztik, ama Atharratzerat joan zen. Bazuen han adiskide handi bat, Felixi; oraino bizi da, Atharratzeko ospitalean, zahar-etxean. Felixiren amak tuberkulosia hartu zuen, eta sanatorio batean sartu zuten. Tabako denda zuen, eta ene amak hango lana egin zuen urte batez. Hola joan nindu-

zun eskolara Atharratzerat. Geroztik, amak bazuen kusina bat Maulen, alarguntsa. Senarra zenak bazuen espartin usina handienetarik Maulen, baina gazte hil zen, eta amaren kusinak deitu zuen ama, idazkari baitzen, lagungoa emateko. Hiru urte bizi gintuzun amaren kusinaren etxean. Gero, amak galdatu zuen dibortzioa ene aitari, eta arra-ezkondu zen beste gizon batekin.

Zenbat urte zenituen garai hartan?

Hamar. Anartean, lau urtetan ene aita ikusi dut hamabost egun edo hiru aste, ez haboro. Aita presondegitik irten eta Indotxinara joan zen, engaiaturik. Lau urte egon zen han, eta arrajin zenean, Liginagara jin zen gu ikustera, baina axaitak eta axamak ez zuten ikusi nahi, eta osabak eta izebak ere ez, eta orduan Astue-rra joan ginen, Xuritegira, non sortua zen axaita. Liburuan [*Le matriarcat basque*] bada argazkia... Axaita Astueko kadeta zen [etxeko bigarrena], axaima, berriz, Liginagako etxeko prima [oinordea]. Axaita axamaren etxera ezkondu zen, dotea eramanez, eta axamaren etxearen izena hartu zuen. Hor duzu matriarkatua! Osaba Johaño Parisera joan zen guarda errepublikano lanera, eta osaba Battista Liginagan zen.

Osaba Battista egin zen etxeko premu?

Bai. Izatez, ene amaren ahizpa Madalena zen prima, baina joan zen Parisera lanera eta utzi zuen etxea. Hortakotz bihurtu zen premu osaba Battista. Oroitzen naiz ttipitan, nik hiru urte, ama eta biok Madalenarengana joan ginela Parisera hilabeterendako, eta ni amarekin eta ttantarekin, metro barnean galdu ninduten! Ez nuen euskaraz baizik mintzatzen, eta ttipi ninduzun, hiru urte! Metroan bazen bide anitz, eta ni jarraiki nintzen ene ttantaren bidean, eta bazen afixa bat txakur handi batekin, eta hor eklatu ninduzun, eta negarrez hasi nintzen: txakur handi hura, eta ni ama xerkatzen, eta ama eta ttantta ez ziren hor! Eta emazte bat eklatu zen ene kantian [kantioan, ondoan] eta galdatu zidan



ez dakit zer, ez bainion deus konprenitzen! Eta horrela galdu nuen euskara.

Zer erran nahi duzu, euskara galdu zenuela?

Zinez galdu nuen! Liginagara arrajin nintzelarik, osaba Battistak erran zidan: "O, baina orain frantsesez mintzatzaren zara!". Hola! Hilabete baizik egin genuen Parisen! Uste dut metro banean galdurik izateak traumatismoa ekarri zidala, eta galdu nuen euskara. Gero, 30 urte-edo nuela, gau-eskolat joan nintzen Maulen, baina, anartean, frantsesa izan zen ene hizkuntza, eta akulturatu nintzen. Frantses irakaslea izan ninduzun, hori zen ene lana. Frantzia bada irakasleendako konkurtso nazionala erraten dena, eta igorria izan ninduzun Poitiers herrira. Baizik urte bat egin nuen han. Poitiersetik landa, Bordele kantian, Braud-et-Saint-Louisen ere izan nintzen lanean, zentral nuklearra den lekuan; sekula ez nauzu ikusterat joan! Kar, kar...

Baina Euskal Herrira jin zinen noizbait...

Bai, zeren Bordeleko akademiako [hizkuntza departamendua] nagusiak, ikusten zuelarik irakasleak postua beren etxetik urrun zuela, laguntzen zuen herrira edo ingurura itzultzeko. Hortakotz izan nintzen Donapaulen, Sohütan, Biarnoko Oloroe eta Nabarrenkoxen... Frantses irakasle. Maulen bizi nindu-

zularik, nahi nuen euskara barneratu, eta hasi nintzen Mauleko gau-eskolat. Allande Sokarrosekila eta ikasi nuen, Junes Casenaverekila eta. Alabadereko irakaslea, Allande! Umore handia ere bazuen! Oroitzen naiz momentu hartan arrestaturik izan zela, IK-koa zelako. Gau-eskolakoak joan gintuzun haren etxera, Etxebarren, eta Allanderen aita negarretan zen: "Gu euskaldunak *ephanxin* [soberan] gaituzu!". Erran nahi zuen euskaldunak ez duela lekurik Frantzian.

Nik, berriz, usten nuen unibertsitate irakasle izana zinela. Matriarkatuaz doktore tesi gaitza egin zara, Txomin Peillen zena tesi zuzendari harturik.

Unibertsitateko irakaslea ni? Ez, batere! Doktore tesia egin nuen matriarkatuaz, bai. Txomin Peillen erran duzularik, banituen bi direktore ene tesian. Gure mundua esplikatu nahi nuen, berdintasuna, sexuen simetria, herentzia, kojabetasuna... baina [Claude] Levi-Strausen obra hartu eta ez nuen aski tresna gure mundua esplikatzeko eta, psikoanalisiak biziki interesaturik bainaiz beti, [Jacques] Lacan jarraiki nuen. Lacanek jakitate handia duela eta psikoanalista ere handia dela pentsatzen dut, eta bera baliatu nuen nire gaiaren beste zenbait alderdi esplikatzeko. Hortakotz, Txomin [Peillen] landa, bigarren direktore bat ere ukan nuen, Tolosako unibertsitateko irakaslea eta psikoanalista berdenboran: Marie-Jean Sauret.



EUSKARA

"Zenbait aldiz traba handiak ditut euskara batua irakurtzeko. Eta, bestetik, Zuberoako euskara maite dut. Beste euskarak ere bai! Ama hil zelarik, bada orain hogeita hamar urte-edo, Lekeitiorat joan ninduzun haren ehortzetatik landa. Banituen bakantzak, eta hara joan ninduzun, euskara baizik entzuteko. Ttipi nintzelarik ama euskaraz mintzatu zitzaidan, baina gero frantsesez mintzatu ginen. Lekeitiorat joan nintzen, bainuen beharra joatea toki batera non jende orok mintzatzeko zuen euskara".

Azken hitza

LEHOIAREN MENDIA ZUBEROA

Lepo gotorrean gima gorria
sütan txütitü zira
leinürü zaharreko
ürrezko Lehua, Zubero, kexürük
orroz.

Argi gitzazü otoi
otoi orhit zite
sü horreki
zer diozün?

Mendi hegian
sortü nündüa
Orhi mendiaren hunaindian.
Ene orroa ederrez,
ene aztapar zorrotzez
züen aüzoko etsaiak
hürrüntü beharrez nindabilan
züek nahi ala ez.

Ene haziaz horra zaizie
ene ahogoz gorriturik
oldar hitzen indarrean
eüskara zahar honen garratza.

Züek harri gogorretan
ediren ez düzüen mezüa
ene südürraz senditürük
gordatzeko dütgogoan.
(...)

*(Txomin Peillenen poemaren zatia,
Anne-Marie Lagardek haren hiletan
irakurria)*

Frantses irakaslea, ofizioz, Maulen bizi zinen, ezkondua eta bi haur... eta, guztiarekin, doktore tesia egin zenuen.

Baina berant egin baitut ene tesia! Bannuen 50 urte! Mauletik Baionara jiten nintzen hirugarren gradu ko kurtsoak jarraituz. Txomin Peillen, Maite Lafourcade... izan ziren ene irakasle. Ordu arte ez nuen sekula pentsatu zer zen gure munduko egitura. Maite Lafourcaderen lanak irakurtzez ohartu nintzen ene axama etxeko prima zela gure Liginagako etxean, axaita joan zela ezkontzera harekin. Maite Lafourcaderen ikerketa handi bat egin zuen, mila kontratu baino haboro estudiatu zituen, eta haiek agerrarazten zuten gure gizartean bazela zerbait ezberdin, European ez zela halakorik, *coseigneurie* [gizon-emazteen jabetza komuna] eta abar. Gure mundua interesatzen zitzaidan, anitz.

Heide Goettner-Abendroth filosofo alemanaren izena ematen duzu matriarkatuaz publikatu duzun liburuaren hastapenean.

Bada jende anitz matriarkatuaz okupatua, eta horietarik da Goettner-Abendroth. Berak erraiten du munduan anitz

“

Goettner-Abendrothek erraten zuen European aspaldi desagerturik zela matriarkatua eta nik hortakotz arrahartu nuen luma, hemengo matriarkatua erakusteko”

direla formula matriarkalak, egin zituen inkestak Afrikan, Asian, Amerikan eta Ozeanian, eta unibertsitateko dogma anitz desmuntatu zituen. Levi-Straussek erraten du sexuen tratamendu ezberdina gizartearen oinarrian dela, baina horrek ez du erran nahi emaztea inferiora dela. Goettner-Abendrothek frogatzen du. Horrekin batera, filosofo horrek erraten zuen European aspaldi desagerturik zela matriarkatua eta nik hortakotz arrahartu nuen luma, hemengo matriarkatua erakusteko, eta esplikatzeko nola posible izan zen. Adibidez, etxearen inportantzia gaitza. Ene ama-

rena zen Goihenetxe, eta zen axamarena, eta arra-axamarena... eta denak izan ziren prima! Arra-axaita jina zen Etxebarretik, hura zen Zabaletzekoa.

Errana duzu hikak, toka eta nokarekin, esplikatzeko duela hobekien sexu identitatearen konstruktioa, eta sexuen arteko berdintasuna...

Uste dut, bai. Bada berdintasuna gizon eta emazteen artean, eta jenerazioen artean ere, eta uste dut hori gure munduan hizkuntzaren bidez egin izan dela, toka-noka horrek egin du konstruktio hori. Izan dira hikaren kontrako iritziak ere, apeznenak-eta, erranik toka-noka satanen formak zirela. Agian hortik ere jin da nokaren kontrako iritzia, baina egia da emaztea elizan zinez porrotatua izan dela. Zukak puruki ezabatzen du sexu identitatea eta, hikak, aldiz, eraikitzen. Gizonak ez du emaztea dominatzen, ez emazteak gizona menderatzen: bada berdintasuna, sexuak maila berean jartzen dira. Gauza anitz badira hor, ezkontza erritualak, premu eta primak izatea, kadetak kanporat joatea, dotea edo ezkonsaria... Gauza anitz! ●



EGUNPASA
SAGARDOAREN INGURUAN
 12:00ETATIK 21:00ETARA

DASTAKETA POSTUAK
DJAK, JATEKOAK
SERIGRAFIA
FLASH TATOO
HEKTOR FOLK
DASTAKETA BEREZIAK
TAILERRAK...

29 2024KO
EKAINA
ZELAIA
SAGARDOTEGIAN

BIZIO

SAGARDO NATURALA
Zelaia
 SIDRA NATURALA

Sarrerak online edo bertan salgai
www.zelaia.eus



Errenta aitortpena, euskaraz



ROBER GUTIÉRREZ
EUSKARA IRAKASLEA

Bai. Errenta aitortpena euskaraz aurkeztu daiteke, Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroa Garaian, urtero UEMAk (Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak) hainbat erakunde publikorekin eta udalekin batera gogorarazten digun bezala. Eta, gainera, euskaraz egin daiteke UEMaren barruan ez dauden inguruetan ere. Kanpaina ugari gogorarazten digute herritarrok administrazioekiko harremanetan euskara erabiltzeko aukera dugula, lehen hitza eta hurrengoak euskaraz egitera animatzen gaituzte, administrazioekiko harremana euskaraz izan dadin sustatu nahian. Kasu honetan ere, euskararen aldeko hautua egitea lortu nahi da, izan ere, errenta aitortpena euskaraz egiten duen herritarren kopurua urtez urte gorantz ari den arren, datuak ez datoz bat ezagutzaren eta erabileraren datuekin. Nabarmen apalagoak izan ohi dira, oraindik ere urria baita aitortpena euskaraz aurkezten duen zergadunen kopurua.

Euskal Autonomia Erkidegoko datuei erreparatuta, Gipuzkoan, 2023an aurkeztu ziren aitortpenen %19,23 euskaraz izan ziren; 77.738 guztira. Bizkaian, %4,8 aurkeztu ziren euskaraz, 31.634 orotara. Eta Araban, %0,7 inguruk aurkeztu ohi du euskaraz. Ez dut Nafarroari buruzko daturik eskuratzetik izan. Datuen argitan, hobetzeko tarte handia dago eta egoera iraultzeko estrategiak landu beharko lirarteke, urtetik urtera hazi dadin ehunekoa, konbentzitututa bai-

Errenta aitortpena euskaraz aurkeztu daiteke, EAEn eta Nafarroa Garaian, urtero UEMAk hainbat erakunde publikorekin eta udalekin batera gogorarazten digun bezala

nago datuek adierazten dutena baino askoz gehiagok dutela aitortpena euskaraz aurkezteko gaitasuna.

Ziur aski euskaldun askori arrotz egingo zaizkie “atxikipen”, “kenkari”, “likidazio oinarri orokor”, edo “hobari” bezalakoak, eta horrek ziurgabetasuna sortuko die aitortpena euskaraz egitea erabakitzean, are gehiago prozesua norberak egin behar duenean, parean beste pertsona baten laguntza izan gabe, ordenagailuaren pantaila besterik ez daukanean. Diru-kontuekin segurutik jo nahi izango dutela, alegia, gehientzat, gatzelaniaz. Pedagogia eta laguntza apur bat beharko da bide horretan euskaldunak ahalduzko.

UEMAk berak zenbait jarraibide eskaini digu Internet bidez, telefonoz, finantza entitateetan edo aholkulari-

tzetan errenta aitortpena euskaraz aurkezteko, eta ogasunarekin harremana euskaraz izan nahi dugula adierazteko.

Ogasunaren eta diru bilketaren arduradun erakundeek ere erraztu beharko lukete prozesua, baina desberdintasun nabarmenak daude haien artean. Horretarako, lagungarria litzateke ogasunek esplizitatzea aitortpena euskaraz aurkeztu daitekeela. Sustatu, lagundu eta saritu egin beharko lukete. Gipuzkoako Foru Aldundian, esate baterako, “Ogasunarekin euskaraz” kanpaina bideratzen ari dira. Haien esanetan, Ogasunak gizarte garapenari egiten dion ekarpen nagusietako bat bere zerbitzu publikoak kalitatez ematea da, eta horrek barne hartu beharko luke euskaldunei zerbitzuak euskaraz erabiltzeko erraztasunak ematea. Gipuzkoako Ogasunaren praktika eta eredia baliatu liteke gainerako lurraldeetara zabaltzeko. Administrazio publikoek euskararen erabilera sustatzeko politika argia eta konpromisoa erakutsi behar dituzte, herritarrek ere hautu hori egin dezaten.

Errenta aitortzeko epea apirilaren 8ko astean abiatu zen Hego Euskal Herrian eta ekainaren amaierara arte egongo da zabalik. Euskaraz eroso airtzeko aukerak eremu guztietara hedatzeko bidean, errenta aitortpenarena ez da samurrenetakoa izango, baina bai eraginkorrenetako bat. Ea urtetik urtera euskararen erabileraren datuak nabarmen hobetzeko gai garen, baita alor honetan ere. ●

'Flâneurraren' hiria



PAULA ESTÉVEZ



IRATI ZUBIA
FILOSOFOA

Artikulu hau *Irutxuloko Hitzak* argitaratu du eta CC BY-SA lizentziari esker ekarri dugu.

Etxetik urrun nagoen honetan, errutinaren parte bilakatu zait gure hiriaren argazkiak erakustea. Mugikorra atera, hiru hondartzak biltzen dituen plano zenitala bilatu eta "hemen bizi naiz" esaten dut. Halako enkontrubatean zera esan zidaten: paseatzeko moduko hiria da zurea.

Literaturan bada paseatzaileari lotzen zaion figura bat: *flâneurra*. XIX. mendeko Europan jaio zen, hiri modernoaren garaikide, baina nago egungo Donostiak ere gustura hartuko lukeela. Hiriko paseatzaile anonimoa da *flâneurra*. Patxadaz dabil jende oldean barrena, oinez, noraezean bezala. Begirada pausatuz behatzen ditu besteak, inork bera begiratu gabe. Pausazko begirada anonimo horri egin izan zaio maiz gorazarre, hiriaren erretratu interesgarri eta sentiberak bilatu direnetan.

Figura zinez erromantikoa da, idiliko. Nola ez, postalaren hiria den honek alfonbra gorria jarriko lioke *flâneurrari*. Baranda zuri bat, goizero ureztatzen den Bulebarra, Alderdi Ederreko tamarindoak, Damen Bateriako harlauzak, harrizko aingeru eta lehoi burudun zubiak, Senaren pareko ibaiertza.

Askok seinalatu bezala, ordea, *flâneurraren* patxada eta plazera ez daude edonoren eskura. J. Wolf eta J. Walko-

wickzek azaldu zuten noraezean ibiltzea pribilegio maskulino eta burgesa –eta batuko nuke zuria– zela. Parkhustek zioen emakumeek ezin zutela ikusiak izan gabe paseatu, beraiek zirelako begirada maskulinoarentzat espektakulu. Helena Swanickek gogoratu zuen etxean behin eta berriro egiten zioten oharra: hiriko kaleetan barna bakarrik paseatuz gero, prostituta batekin konfundituko zaituzte.

Irudika dezaket, aise, *flâneur* donostiarra. Paseoaren ostean eseriko da Tabakalerako terrazan, kafe garestia lagun, plazan barrena dabilzane begiratzena. Nekez ibiliko da patxadaz, ordea, plazan bertan Poliziak hiru pausotik bitan geratu duen gaztea. Edo lantokitik haurren eskolara presaka doana. Edo gurgildun aulki bati bultzaka dabilena. Edo lagunari besotik heldu eta handik ez, hobe beste aldetik, esatera ohitu dena.

Flâneurrari kontrajarri, *flâneusaren* figura azaldu zen. Oro har, XIX. mendeko emakume burgesak gorpuztu zuen. Galeria eta saltoki modernoetan bilatu zezaketen klase jakin bateko emakumeek behingoagatik inoren zaintzarik gabe paseatzeko parada. Nago *flâneusari* ere, horrela marraztutakoari behintzat, gustura egingo liokeela ongiatorria Donostiak.

Alabaina, Irati Majuelok azaldu du *flâneusarekin* ere pauso bat haratago joateko premia. Galdetu du ea irudika genezakeen, adibidez, *flâneusequeer*-ik, edota *flâneus* bollerarik. Egin dut ariketa eta jarri diet nire lagunaren aurpegia. Bakarrik baino, elkarren besotik helduta doaz. Oharkabean baino, zalapartatsu. Kafe moñoñoa beharrean, marianitoa eskatzen dute. Eta besteei zelatan baino, emozionatu eta terraza osoak aditzeko moduan hitz egiten dute.

Eta *flâneus* gozagarriak imajinatu ahala, gure amarekin ere akordatu naiz. Paseatzaile sutsua da, baina nahiago izaten ditu distiratsuak ez diren itinerarioak. Joaten da Loiolako Erriberatik Hernanira, Grosetik Pasaiara edo Erreteriarra. Lepo dituen eginbeharretan murgiltzen zaio gogoa nahiko lukeena baino gehiagotan. Kafea hartzen du gaupaseroa eta langilea gurutzatzen diren tabernan. Umoreko denean, karajilloa eskatzen du, Soberano koñaka eta azukrearekin. Halaxe egin ohi du betidanik lagun minarekin elkartzen denean ere.

Flâneur estiratuaren aldean, nahiago beste horiek zapal dutako hiria. Postaletan kabitzen ez diren begiradak izango dira, seguru aski, interesgarri eta hunkigarrienak. ●



MAIALEN ARTEAGA
KAZETARIA

'Intensa'

Inoiz ez zait epeltasuna gustatu. Ez naiz sekula eroso sentitu zentroan, ustez erosoenak diren eserlekuetan. Bizitasunez sentitzeko greba mugagabe honetan eskirola sentitu naiz askotan. Pentsatzen dut, hein batean, epeltasuna badela sistemari eta *status quo*ari kome-ni zaion zerbait. Poztu daitezela, baina ez gehiegi. Haserretu daitezela, baina ez gehiegi, aldarrikatu dezatela, maitatu dezatela, hausnartu dezatela, mugi daitezela, baina inoiz ez gehiegi. Sentimenduen eskala legitimoak Ibuprofenoak eta Lorazepamak gosalduko bagenitu moduan neurtzeak beldurra ematen dit. Beldurra, norman sartzeak eskala horren barruan kokatzea exijitzen duela, eta beldurra, eskala horretatik hain urrun kokatzen naizelako. Zu, zeure buruari hain muturreko eta neurrigabe sentitzea baimentzen diozun zoro hori.

Sentitzen dudana guztia muturreko sentitzen dudala esan didate askotan; beste askotan, aurpegiratu ere bai, aldatu beharreko zerbait balitz bezala. Maite dudanean asko maite dut, gorroto dudanean asko gorroto dut, zerbait gustuko dudanean, gauza sinpleena baldin bada ere, aldartea baldintzatzeko ahalmena izateraino dut gustuko. Entregatzen naitzenean, azken hantsa eman arte entregatzen naiz, eta zerbaitetan sinisten dudanean, eskua baino gehiago ere jarriko nuke sutan sinisten dudana horregatik.

Zerbaitek amorratzen nauenean, edo min ematen didanean, gaixotu egiten naiz, amorrak eta tristurak barrua jaten didalako, eta burua ere bai, eta bada-kizue, gorputzari ezin zaizkio gezurrak luzaroan ezkutatu. Muturreko sentitzen dut dena, eta hala naiz lagun artean, eguneroko erabaki sinpleenetan, harreman sexu-afektiboetan, ikasketetan, zaintzan, haserrean, doluan, barranean txinpartak eragiten dizkidan albistek irakurtzen ditudanean eta militantzian.

Mugitzen dena ez da berez mugitzen, bestelako indar batek eraginda mugitzen da beti, mugitzen gara beti. Eta galdetzen diot neure buruari: epeltasun etengabe bizi diren horiek, kanpoan gerra hotsak daudenean bakean eta barean bizi direnaren bandera altxatzen duten horiek, ezerk mugitzen ez baditu, nola mugituko dira? Gauzei garrantzi handiegia ematen diodala esan didaten horiek, dena gehiegi sentitzen dudala aurpegiratu didaten horiek ez al daude bizitza bizitzen ari direlakoan beste ezerengandik hurbilago, bizitzatik baino?

Intensa hitza itzultzaile neuronalean bilatuz abiatu dut artikulu hau (horrela deitzen digute eskala moderatutik kanpo sentitzen dugunoi, normalean, emakumeoi), eta euskaraz *bizi* izan da lehen emaitza. Justizia poetikoa iruditu zait. ●

Maiatz ederrak



ITXARO BORDA
IDAZLEA

Maiatzean nahi dena egiten ahal dela dio frantsesezko erran zahar batek eta hala dela iruditzen zait. Egunak luzatzen dira, tenperatura hupatzen eta halako axola-gabezia aire zerbaitek inarosten dizkigu buru zokoak. Egia aitortze aldera, nire garuna martxo bukaeran hasten da itxeska: hiru liburu irakurtzen ditut egunean, korrika eta ibiltzera ateratzen naiz goizean eta arratsaldean, kilometroan beltzatzen ditut paper zuriak... udaberriak benetako bizi berritze garaia dira niretzat, Rachel Carsonek 1962an iragartzen zituenak baino zaratatsuagoak gainera. Beharrik eta zorionez.

Maiatzaren Lehenean langileen eguna ospatu dut lankide ohiekin Baionan oparo bazkalduz. Aitortu behar dut manifestarien artean, bilo beltz baino ile urdin eta zuri gehiago ikusten zela: langabetu batzuk, erretretadunak gehienak, non ziren besteak? Badirudi lan mundua ibilarazten zuten sinesmen ideologikoak erraztatuak izan direla hondar hamarkada hauetan eta badakigu, aburu-ikerketen arabera, langileek eta sustut langile ohiek dagoeneko eskuin muturretara bozkatzeko dutela.

Lanean ari ez den jende arrunta harritzen da Maiatzaren Lehena besta edo jai delako. Ez du konprenitzen ere zergatik. ●

Enpatia ardatz



AINGERU EPALTZA
IDAZLEA

"Gero eta aldeko gehiago". Euskaltzaleen Topaguneak hala-ko izenburua duen dokumentua aurkeztu zuen lehengo apirilean Iruñean.

Nafarroan euskararen inguruan ari den jende aunitzen artean aspaldi handitik dabil kezka herrialdeko gizartearen zati handi bat euskararen inguruko jarrera positiboetatik zein urrun dabilen ikusita, eta horrek euskararen bizi-raupena eta biziberritzea nola tratatzen duen ohartuta. Hartara, euskaltzaleek egoera horri buelta emateko zeregina badutela usterik abiatu zen, duela hiru urte, lehengo hilabeteaz plaza-erantzutako agirian gorpuztu den ekimena.


Funtsean, "gaur egun euskararekiko atxikimendua sentitzen ez duen jende multzoari euskararen aldeko pertzepzioak eta posizioak aldatzeko heldulekuak" eskaintzea da dokumentuaren mamia. Estatu proiektu ezberdinen arteko talkek edota alderdien interesek afera honetan duen eragina ez dute saihestu haren egileek. Aldiz, komenigarria irizten diote "euskara biziberritzeari loturikoak zurrumbilo horretatik


Ez axola diren edo urrun daudenak euskararen aldeko jarreretara hurbiltzeko langintzan, ez da beti erraza zer egin behar den asmatzea

at" kokatzeari, eta "nazio identitateen arteko talkatik ere, ohiko begirada dikotomikotik haratago begiratzea" proposatzen. Izan ere, garrantzitsutzat jotzen dute "nafar gizarteari helaraztea euskararen aldeko jarrera izatea, abertzaleen gauza bat izatetik haratago, posizio politiko bat dela: aniztasunaren aldekoa, berdintasunaren aldekoa, bizikidetzaren aldekoa, uniformizazio eta autoritarismoaren kontrakoa". Horrek, haien aburuz, "lagundu behar luke aliantza eta kokplizitate berriak eraikitzen".

"Aliatuak bilatzea eta zaintzea" helburu, beraz, haiekiko "enpatia" praktikatzeko "ardatza" dela nabarmentzen da. Horretarako, kasu bakoitzean, "lehentasunak ongi markatzea eta planteatzen den ekimenaren eragina neurtzea" zein onuragarria den oroitarazten zaigu dokumentuan, alegia, "ekimenak eraginen duen talka sozialaren eta ekarriko duen etekinaren arteko balantza ongi neurtzea komeni" dela.

Hori gutzia gero praktikara eramatean etortzen dira, noski, kontuak. Ez axola diren edo urrun daudenak euskararen aldeko jarreretara hurbiltzeko langintzan, ez da beti erraza zer egin behar den asmatzea. Aiseago, berriz, zer egin behar ez den, hain izaten baita begi bistakoa. Konparaziorako, ekitaldi ekitaldi Korrikan presoan argazkien tradizioari eusten dioten horiei norbaitek -lagunen batek, maitetueneen batek- esplikatu behar lieke, zorieko karteltxo horien inguruan aldi bakoitzean sorrarazten duten zaratak zer guti laguntzen dien lasterketaren helburuei eta zer bidelagun guti, zer aliatu guti, ekartzen dion euskarari. Oraindik ez dut itzaropena galdu. ●



U	I	K		UDA IKASTAROAK CURSOS DE VERANO SUMMER COURSES	UPV/EHU
UIK.EUS					
UDA IKASTAROAK					
EZAGUTZAREN ALDE					
MATRIKULA ZABALIK					



ARGIA

BABESTEKO

ARRAZOI

1. KAZETARITZA INDEPENDENTEA

Langileona delako hedabide hau, ez inolako banku, multinazional edo alderdiren.

2. EUSKARATIK ETA EUSKARAZ

Gure hizkuntzak funtsezko dituelako euskara hutsean funtzionatzen duten proiektuak.

3. HEDABIDE DIGITALA ETA PADEREKOA

Egunero sarean aktualitatea jorratu eta aldizkarian hats luzeko kazetaritza lantzen dugulako.

4. EZ GARA NEUTRALAK

ARGIA jendartea eraldatzeko tresna izan nahi dugulako kazetaritza kritikoaren bidez.

5. PODCASTAK ETA DANTAILAK EUSKARAZ

Ehunka dokumental, film-labur, hitzaldi eta abar eskaintzen ditugulako libre eta doan.

6. ELKARLANAK BULTZATUZ

Eragile ugariarekin proiektuak ditugulako: Inor Ez Da Ilegala, Bizi Baratzea, Lurra Herriari Deika, Euskarazko Plazen Sarea...

7. GOOGLE GABE

Gure irakurleen pribatutasuna babesten dugulako teknologia burujabetzan sakonduta.

8. BANAKETA EKOLOGIKOA

Bizikleta bidezko banaketa sustatzen dugulako, plastikorik gabeko zorrotan.

9. 100 URTETIK GORA

Ibilbide luzeko eta etorkizun luzeagoko proiektua delako.

10. MILAKA PERTSONAKO KOMUNITATEA

ARGIA Jendea delako proiektuaren independentziaren bermea.

11. ELKARTASUNEAN OINARRITUTAKO HARDIDETZA

Norberak erabakitzen duelako zenbat ordaindu, inor ARGIArik gabe gera ez dadin.

TXIKITIK ERAGITEN argia.eus/eginargiakoa



Euskararen konplizeak Gasteizen

Hizkuntza gutxiagotuetako hiztunen begiradatik

Erreportaje honetako protagonistak Gasteizen bizi dira eta hizkuntza gutxiagotuetan hitz egiten dute: amazigeraz, galegoz, mirpuriz eta guaranieraz, hurrenez hurren. Soumia Berkani Ben Yahia, Toni Cid Armanda, Altaf Hussain, eta Sonia eta Delcy Godoy Bizzozzero dira. Euskal hiztun komunitatearen egoera ulertzeko tresna gehiago al dituzte eskura?

 CIRA CRESPO  DOS POR DOS

Gasteizen bi hizkuntza ofizial daude, euskara eta gaztelania; eta horiez gain, eskoletan ingelesa eta frantsesa ikasteko aukera ere bada. Baina hirian hizkuntza gehiago hitz egiten dira. Udalak egindako inkestek erakutsi dute Gasteizko kaleetan, gure familien artean, 50 hizkuntza baino gehiago entzun ahal direla. Inkestak eta zenbakiak, bere horretan, hotz samarrak izaten dira, ez dute sentimenduen berri ematen, edota indar harremanak zeinen alde dauden abisatzen, munduko hizkuntza honek ala besteak zein historia dakarren. Hizkuntza guztiak ez dira berdin tratatuak, badira hizkuntza hegemonikoak edo gehiengotuak, eta hizkuntza gutxituak; eta horren ondoren, badira nazioartean begirune han-

diagoa jasotzen duten kulturak, erraz identifikatzen direnak, eta badira beste batzuk, jatorrizko lurraldean bertan gutxietsiak izanik, gure kaleetan oharkabean, ikusezinago igarotzen direnak.

Erreportaje hau sinatzen duen kazetariak jakin nahi izan du ea Euskal Herrian dagoen errealitate soziolinguistikoa, euskararen erronkak eta diskriminazio egoerak errazago eta hobeto ulertzeko modua duten hizkuntza gutxituotako hiztunek. Euskara aurrera ateratzeko konplize bila atera gara, eta Gasteizko herritar arruntekin hitz egin dugu. Ez dute zenbakirik eman: norbere esperientzia eta ikuspuntu pertsonalaz aritu dira.

Elkarrizketa horien emaitzak mundua zein zabala eta aberatsa den go-

gorarazten du; baina ez hori bakarrik, euskararen egoerari parean jartzeko moduko ispilu zatitxoak ere badira, beharbada, eta, balio lezakete euskaldunon hizkuntza komunitatea hobeto ulertzeko.

MUNDU ASKO KABITZEN DIREN HIRIAN

Soumia Berkani Ben Yahiaeren etxean tamazigh hizkuntza hitz egiten dute. Tamazigha, Wikipediaren arabera, amazigeraren aldaera bat da, Marokoko Erresuman hiru milioi hiztun inguru dituena. Horrela azaldu digu bere herriko egoera soziolinguistikoa: "Maroko iparraldekoa naiz, Nador hiri txikikoa. Marokoko hizkuntza ofiziala arabiera da, baina eremu batzuetan

Sonia eta Delcy Godoy Paraguaikoak dira eta guaraniera hitz egiten dute. Landa eremutik hirira eskolara joan zirenean hasi ziren gaztelania ikasten, eta gogoan dute barre egiten zietela.



hainbat hizkuntza hitz egiten dira; adibidez, nire etxean tamazigha hitz egiten dugu. Oso hizkuntza desberdina da, eta oso zaila, hemen euskara bezala... ia gauza bera da".

Toni Cid galegoa da. Galegoak ere hiru milioi hiztun inguru ditu. Portugesarekin batera, sistema linguistiko bakarra osatzen du, galego-portugesak, bi hizkuntza horien arteko antzekotasunak handiak baitira. Ez pentsa halere, Cidek galegoz Galizian ikasi zuenik. Venezuelan jaio zen, migratzaile galegoen komunitate handi batean. "Venezuelan jaio nintzen, gurasoek hara emigratu baitzuten. Amak eta aitak galegoz hitz egiten zidaten. Etxean galegoz eta kalean gaztelaniaz. Hala ere, Venezuelen galiziar asko zegoen eta bazen zentro galiziar oso garrantzitsu bat, eta harreman handia genuen gure artean".

Altaf Hussain duela urte batzuk etorri zen Gasteiza. "Pakistan aldeko Kaxmirrekoa naiz, Azad hiriburukoa. *Azad* hitzak 'Kaxmir libre' esan nahi du. Independentzia eskatzen duen herrialdea da; Pakistan, India eta Txinaren artean zatituta dago. Duela 70 urte gobernu propioa izan zuen. Dena den, orain lasai gaude, ez dago gatazkarik, borondatea bakarrik".

Hussainek lau hizkuntza ekarri ditu bere herrialdetik: "Mirpuriz hitz egiten dut familian; gure herrialdeko hizkuntza da. Punjabera ere hitz egiten dut. Bi hizkuntzak kalean ikasi nituen, txikitant. Gero eskolan urdua ikasi nuen, Pakistango hizkuntza ofiziala. Eskolan ingelesa ere ikasi nuen, baina nire etxeko hizkuntzak, ez. Gure hizkuntza ez dago debekatuta, baina ez da irakasten".

Hussainekin hitz egin eta gero, berak aipatutako hizkuntzari buruzko datuak bilatzen aritu gara, eta kosta egiten da zerbait aurkitzea. Azkenean, jakin dugu adituen arabera mirpuri hizkuntza pahari-pothwari hizkuntza taldean sartzen dela, eta, mirpuri bariatatea kaxmir identitateari oso lotuta dagoela; han ere, lurraldea eta hizkuntza elkar hartuta doaz. Zenbat hiztun dituen kalkulatzeko gaitza da. Esaterako, Ingalaterrara Pakistandik joan den emigratioaren jatorri nagusia lurralde hori da eta mirpuria da Ingalaterran gehien hitz egiten den bigarren ama hizkuntza, ingelesaren ondoren.

Gasteizko Arana parkean, paraguairren artean oso hedatua dagoen boleibol mota berezi samar batean aritzen dira arratsaldetan, eta parkea komu-

"Hemen gertatzen den eran, gure hizkuntza defendatzen duen jendeak sorturiko elkarte batean [ikasi nuen tamazigha].

**Soumia Berkani,
amazigera hitzuna**

nitate paraguaiarraren topagune bilakatu da. Paraguai oso herri berezia da Hego Amerikan hizkuntzei dagokionez, zeren eta han, gaztelaniarekin batera, guarani hizkuntza ere ofiziala baita. Jatorrizko hizkuntza bat ofizialtzat duen Hego Amerikako estatu bakarrenetakoa da. Arana parkean, Sonia eta Delcy Godoy Bizzozzero ahizpak, guarani hiztunak, ezagutu ditugu. "Gu Paraguaiako landakoak gara, *campiña-koak*, han esaten den bezala, eta guaranieraz hitz egiten dugu. Herrietan batez ere guaranieraz hitz egiten da. Hirian ez hainbeste". Hizkuntza horrek Paraguain bertan sei milioi eta erdi hiztun ditu, eta Paraguaiako mugez harago joz gero, beste bi milioi eta erdi konta omen daitezke.

HIZKUNTZA GUTXITUAK HEZKUNTZAN

Elkarrizketa guztietan izan da hizpide hizkuntza nola ikasi duten, zein baldintzatan eta alfabetatzeko zein auke-

ra izan duten eta zein ez; eta denetan antzeman daiteke norberaren herrialdean hegemoniko den hizkuntzaren aldeko diskriminazioa. Berkanik, adibidez, tamazigha idazten herri elkarte batean ikasi zuen, ez eskolan: "Hemen gertatzen den eran, gure hizkuntza defendatzen duen jendeak sorturiko elkarte batean izan zen. Eskolan arabiera eta frantsesa ikasten dira, baina nire garaian behintzat ez zen tamazigha ikasten; orain irakasten den, ez dakit". Kaxmirreko Hussainek ez daki bere hizkuntzan ez idazten ez irakurtzen: "Guk gure hizkuntzan ez dakigu idazten, ezta nire gurasoek ere. Aitona-amonek bai, Kaxmir herrialde independentea zenean eskolan ikasten zelako".

Cid galziarraren ustez, orain gauzak hobeto daude Galizian, bera han bizi zenean baino: "Bi ikasgai genituen galegoz, literatura galegoa eta gizarte zientziak, eta kalean ez zen orain bezainbeste hitz egiten. Orain bai, aldaketa bat izan da. Hizkuntza-politikek, azkenean, funtzionatu dute. Hemen funtzionatu duen bezala, esfortzu eta diru askorekin, Galizian ere bai... askoz ere esfortzu gutxiagorekin eta askoz diru gutxiagorekin".

Paraguain ere guarania ikasten da eskolan, baina beste leku batzuetan gertatzen den bezala, ez da aski hizkuntza hegemonikoaren parera altxatzeko. Sonia Godoyk horrela eman digu egoeraren berri: "Eskolan ikasgai gisa ikasi genuen. Gogoan dut garai batean guaranieraz ere ikasgai gehiago eman izan zirela, baina gero kendu egin zuten, jende bat kexatu egin zelako... baina alderantziz izan beharko luke, gure hizkuntza da. Gasteizko gure herrikide batzuek ere ez diete beren seme-alabei guaranieraz hitz egiten, hizkuntzari uko egingo baliote bezala da". Eta Delcyk, ahizpa gazteak, ondorengo hau gogoratu du: "Gaztelania hirira joan ginenean ikasi genuen, 6 eta 12 urterekin. Hara joan ginen bizitzera, eta gogoratzen naiz hango lehen graduari sartu nintzenean nik ez nekiela espainolez hitz egiten, eta mundu guztiak barre egiten zidala. Nik negar egiten nuen".

PARTEKATZEN DITUGUN MINAK

Gutxituriko hizkuntzetako hiztunekin aritzerakoan, antzekotasunak saihestezinak dira; mespretxuak, diskriminazio egoerak, edota haien memoria ez

"Ez dit penarik ematen nire hizkuntzan ezin irakurtzeak; familiarekin hitz egiteko balio dit. Egunero hitz egiten dut haiekin"

**Altaf Hussain
mirpuri hitzuna**



Alfat Hussain Pakistan aldeko Kaxmirrekoa da. Mirpuri hizkuntza hitz egiten du, eta ez daki ez irakurtzen ez idazten bere hizkuntzan. Bere ustez, hizkuntza ez dago galtzeko arriskurik, ez du uste urduerak ordezkaturiko duenik.

dira aldatzen kontinente batetik bestera, antza. Cidek dio Galizian "lehen, galegoz hitz egiten bazenuen, herriko astoa zinen, eta hori aldatu egin da".

Godoy ahizpak eremu publikoko hizkuntza ofizialaz mintzo zaizkigu: "Ez da hemen bezala; hemen eremu publikoan aritzeko euskaraz jakitea eskatzen da. Han, adibidez, aita banku batera joaten da, guaranieraz hitz egiten dio, eta han lan egiten duenak ez dio erantzuten, edo esaten dio, "ez diot ulertzen jautsa; nik ez dut guaranieraz hitz egiten". Afrika iparraldeko bere herrialdeko egoeraz, berriz, hala dio Souimak: "Ez nago kanpotar bat nire hirira etorri eta bertan lan egitearen aurka, baina izan dezala gutxienez oinarritzko maila bat jendearekin hitz egin ahal izateko; adibidez, nire ama, postetxe batera joaten denean, ez dago itzultzaile lana egingo duen inor, eta haiek baino gutxiago sentitzen da, gogorra da hori. Behinik behin, errespetatu andrea, ez hitz egin horrela, ez iezaiozu pentsarazi zu baino gutxiago dela. Medikuarerera joaten denean ere, kosta egiten zaio min zerk egiten dion ulertaraztea; imajinatzen duzu egoera? Oinarritzkoa da herritar bati min zerk ematen dion ulertzeko gai izatea".

Hussainek beste jarrera batekin bizi du bere hizkuntzaren egoera. Nahiz eta mirpuriz ezin irakurri edo idatzi, pozik dago: "Nik uste dut gure hizkuntzaren egoera ona dela; jendea ez da murpuria urdueragatik ordezkutzen ari. Arazorik gabe hitz egin dezakegu; gehienek ez dakite idazten, baina kalean oso pertsona gutxi entzungo duzu urdueraz. Gehienek mirpuriz edo punjaberaz hitz egiten dute. Ez dit penarik ematen nire hizkuntzan ezin irakurtzeak; familiarekin hitz egiteko balio dit, gure artean hitz egiteko. Egunero hitz egiten dut

haiekin, oso harreman estua daukagu. Orain gaztelania ikasi nahi dut, hemen bizi behar dudalako".

Soniak eta Delcyk, aldiz, bere herrian gutxiespenak pairatu dituzte: "Gaztelaniaz ondo hitz egiten ez baduzu, ez duzu aukera berdintasunik. Amak, adibidez, zera esaten zigun: "Pentsa nik eskola amaitu izan banu!". Oso azkarra zen, baina 5. mailara arte bakarrik ikasi zuen eskolan. Bikaina zen matematikan, hizkuntzan... kontua da ez zuela oso ondo hitz egiten espainolez".

ALDAKETA

Delcy pozik dago Gasteizen: "Lehen aldia gogoratzen naiz... Madrildik iritsi nintzen eta belaunetarainoko elurra zegoen. Eta oso ondo gogoratzen dut ahizpa autobus terminalera joan zenean erori egin ginela, ezinezkoa zen oinez ibiltzea. Paraguain egiten duen hotzik handiena 16 gradukoa da, gehienez ere. Dena zuria zela gogoratzen dut. Niri asko gustatzen zait hemengo klima, hotza gustatzen zait. Paraguain bero handiegia egiten du, etsigarria da". Delcyri bezala, Berkaniri ere gustatu egiten zaio hemengo eguraldia: "Hasieran kostatu egin zitzaidan eguraldira ohitzea, baina orain alderan-

"Bitxia da. Hemen espazioak hizkuntza batekin erlazionatzen dituzte. Galizian gehiago lotzen nuen pertsonarekin".

Toni Cid galego hiztuna



Soumia Berkani Marokoko iparraldekoa da, Nador herrikoa. Tamazigha hitz egiten du. Marokon hiru milioi hiztunen hizkuntza da. Gasteizen alabak euskaraz ikas dezan ahalegintzen da.

tziz; esnatzen naizenean eta iluntasuna ikusten dudanean, zeru grisa, gustatzen zait! Euria entzutea, euripean ibiltzea... Babestuta zaudela sentitzen duzu, Gasteiz oso abegikorra da".

Hussaini, aldiz, Europan lehenengo hilabeteak zailak gertatu zitzaizkion: "Han ez genuen bizimodu txarrik. Ni ez naiz familia txiro batekoa, lur asko ditugu. Hona datozenak ez dira pobreenak. Gehiago nahi nuelako irten nintzen nire herritik. Han esaten dugu 'begiek ez dutela betetzen'. Lehenik Ingalaterrara etorri nintzen. Ingalaterratik, gero, Bartzelonara, eta pentsatu nuen, 'ez dakit nora etorri naizen': hilibia zirudien leku batean bizi ginen. Herri txiki batetik nentorren, zaratarik gabekoa, lasaia... eta Bartzelonako Ravalen nengoen. Han zarata dago 24 orduz".

SEME-ALABA GASTEIZTARRAK

Soniak, Berkanik eta Cidek Gasteizen jaiotako seme-alabak dituzte. Berkanik pena du alabari ez diolako tamazigha irakatsi: "Nik alabarekin arabieraz bakarrik hitz egiten dut, pixka bat kostatu baitzitzaien hitz egiten hastea, eta

beldur nintzen nahasmena sortuko ez ote nion. Eta pena ematen dit berbera [tamazigha] irakatsi ez izanak. Horregatik, hemen, hizkuntza bat duen edonori esaten diot: 'heldu iezaiozu, ez utzi galtzen'. Euskara, adibidez. Eta galdetzen didate, zergatik egiten duzu euskararen alde? Beren hizkuntza delako, eta hemen zaudelako, horien artean zaudelako... hori ere nire hirian gertatzen da, ulertzen dut".

Berkanik ahal duena egiten du bere alabak euskaraz ikas dezan, baina Gas-

teizen ez da erraza. "Medikuarenera joan nintzenean, zera esan nion: 'Ez mindu, baina ahaztu hemen nagoela, eta nire alabari euskaraz galdetu'. Eta harrituta geratu zen. Komentatu nion nire alabaren irakasleari ere: 'Zuek, hemen, komunitatean, ez duzue laguntzen'. Nire alabarekin topo egiten badu kalean, hitz egin diezaiola euskaraz! Katalunian, nire ahizparekin ibiltzen naizenean, katalanez hitz egiten dute, medikuarekin, supermerkatuan... Askok gustatzen zitzaidan! Hango haurrek, haien artean, katalanez hitz egiten dute! Nire ustez, eskolatik kanpo oso lagungarri dira euskaraz egiten diren jarduerak. Ni beti saiatzen naiz euskarazko jarduera batean apuntatzen umea, nahiz eta berak esaten didan, 'ama, lasaiago aritzen naiz gaztelaniaz'. 'Ez, alaba, hitzik aurkitzen ez baduzu ez da ezer gertatzen, esan gaztelaniaz, baina saiatu euskaraz hitz egiten', esaten diot".

Cidek ere oso garbi izan du beti: "Estatuko funtzionario-plaza bat atera nuen, eta hona etorri behar izan nuen. Hemen ezagutu nuen nire emaztea. Haurdu geratu zenean, euskara ikas-

"Gasteizko gure herrikide batzuek ere ez diete beren seme-alabei guaranieraz hitz egiten, hizkuntzari uko egingo baliote bezala da"

**Sonia eta Delcy Godoy
guarania hiztunak**



Toni Cidek guraso galegoak ditu. Venezuelan jaio zen eta gurasoengandik jaso zuen galegoa. Gasteizen euskara ikasi du eta haurrak D ereduan matrikulatuak ditu.

ten hastea erabaki nuen. Eskolan lagundu nahi diodalako sentitu dut beharra. Bost urte egin nituen euskaltegian, B2 atera nuen, eta horrekin nago, ez dut jarraitu. Gero, lanez aldatu ahal izateko balio izan zidan. 2020an atara nituen oposizioak Foru Aldundian. Primeran etorri zait". "Beti izan dugu argi gure seme-alabak D eredura eraman nahi genituela. Izan ere, ez genuen euskara oinarri onik eta ezin izan genien asko lagundu; hizkuntzaren gaia indartu behar zela eta, D ereduan sartu behar genituela erabaki genuen".

Soniak ere bi seme ditu, bata txikia da, baina besteak 6 urte ditu, eta Gasteizko eskola publiko batean dabil: "Bai, euskaraz hitz egiten du, eta bere lehengusuarekin euskaraz ere egiten du, [irribarrea du ahoan] eta bere lagun minarekin, arabieraz!".

Ciden ustez, hemengo hezkuntzak oso ondo funtzionatzen du, eta bere seme-alabek euskara maila ona dute horri esker. "Nire ustez, hizkuntza-politikek funtzionatzen dute. Eta datorren belaunaldietan, haurren ia %100ak euskara jakingo du, ulertu egingo du". Are gehiago, harrituta dago zein maila ona

duen: "Nabaritzen da ikastolan landu egiten dutela, erabili egiten dutela... Eta hezkuntzarekiko jarrera ona dute. Neskak hobea du. Haurrak, dagoen tokiaren arabera, euskaraz onartzen du, ala ez. Ikastolan arazorik gabe hitz egiten du euskaraz, edo gizarte-etxean. Nik uste nuen hizkuntza hautua pertsonaren arabera zela, hau da, nik semeari gaztelaniaz hitz egiten badiot, beti gaztelaniaz hitz egin beharko diot, ez baitu onartuko euskaraz hitz egitea, baina ohartu naiz hemen ez dela horrela, tokiaren arabera baizik. Ikastolaren barruan banago, euskaraz hitz egin diezaioket, eta ondo erantzuten dit; baina kalean banago esaten dit, 'aita, hemen ez da euskararik egiten'. Bitxia da, bai, hemen espazioak hizkuntza batekin erlazionatzen dituzte. Galizian gehiago lotzen nuen pertsonarekin, norbaitek galegoz hitz egiten bazidan, galegoz; gaztelaniaz egiten bazidaten, berriz, gaztelaniaz egiten nien".

GUREAN NAHI

Guztiak gelditu nahi dute gurean. Berkanik lan on bat bilatu nahiko luke, baina beloagatik iruditzen zaio aurrei-

ritziak pairatzen dituela, eta horregatik lan aukera mugatuagoak dituela. Tristetu egiten du horrek. Hussainek ere hemen gelditzeko asmoa dauka, bizimodu duin bat eraiki duelako, bere familia ia osoa European dagoelako, eta ez zaiolako lanik falta.

Soniak eta Delcyk ere garbi dute. "Hemen etorkizun hobea duzu, bizikalitate hobea...", dio Soniak, eta gehitu du: "Ez dugu dirurik, baina bizi-kalitatea daukagu". Eta bere ahizpak ere garbi dauka: "Begiratzen diozun lekutik begiratzen diozula ere, zentzu guztietan, hemen hobeto bizi da jendea".

Cid ere ados dago, eta sakondu du: "Nire familia hemengoa da, eta hemengoak sentitzen dira, eta ez dit penarik ematen. Ni galiziarra naiz, galegoa sentitzen naiz, baina nire jendea hemen dago. Bizi-maila hobea dagoen leku batera bazoaz, hobeto zaudenez, erraza da egokitzea. Eta niri horrek erabakia argitzen dit, Galizia okerrago dagoelako, askoz atzeratuago dagoelako, eta emigrazio handia dagoelako; ni horren isla naiz, gurasoak Venezuelara joan ziren, aitona Kubara... Baina ni ez naiz itzuliko, leku hobean nagoelako. Maila guztietan, nik uste". ●

Koop
mitxelena
MEKANIZATUAK

Neurri handiko piezen mekanizazioan espezialistak

LRQA CERTIFIED AS 9100

LRQA CERTIFIED ISO 9001

Eziago industrialdea 21, HERNANI
943 55 25 12 - 16
info@talleresmitxelena.eus
www.talleresmitxelena.eus

Lurra Taupaka festa

AMILLUBI MARTXAN DA

Laborantza ekologikoa sustatzen duen Biolur elkarteak Amillubi proiektua abiatu du, Gipuzkoan toki estrategikoan kokatua dagoen Amilibia baserria eta bere bederatzi hektarea lurra kolektibizatzen. Maiatzaren 11n festa egin dute Amillubin: herritarrek proiektua bertan arnastu dute eta elkarrekin ospatu dute elikadura burujabetzaren eta lurra babestearen aldeko ekimena abian dela.

 ESTIXU EIZAGIRRE KEREJETA

Zestoako Iraeta auzoan autoa utzi eta Urola ibaiaren meandroari jarraituta hamar minutuko ibilbide gozagarria eginda iritsi dira Euskal Herriko hainbat txokotako herritarrak Amilibia baserriaren lurretara. Amillubi proiektu kolektiboa martxan jarri dela ospatzera doaz Udaberriko Lurra Taupaka festara eta bertan topatu dutenak sorpresa oso goxoa eragin die barruan. Zelai ederra mendiz eta basoz inguratutako paisaia aberatsean, eta Amillubi

proiektuko kideek modu berezian atondutako jai azpiegitura: lasto fardoek eutsitako anfiteatro txiki bat eszenatoki aurrean; karpa txikien azpian mahaiekin sortutako txokoak; oihal koloretsuak eta sonbrillak nonahi zelaian etzan nahi dutenentzat; bertako edariak zerbitzatzeko dituen txosna; haurren jolasgunea; Palestinako bandera oholtzan; Otxantegi Herri Lurrak proiektuari babesa erakusten dion pankarta eta beste mezu hauek dituztenak ere bai: "Baratzea duen he-

rria ez da gosez hilko", eta "Agroekologiatik askatasunera".

Natur eremuan eta eguzkia lagun, giro lasaia eta atsegina sortu da hasieratik partaideen artean, egunean zehar berotzen joan da, eta iluntzean izan diren euri zaparradei karpen azpian elkarrekin dantzan eman diote amaiera apoteosikoa jaiari. Bazkaritan 200 pertsona batu direla eman du jakitera antolakuntzak, eta horiez gain beste 50 inguru pertsona izan direla goiz pasa egin dutenak, eta beste hainbeste





arratsaldean bertaratu direnak. Biolur laborantza ekologikoa sustatzen duen elkar-
tea da Amillubi proiektuaren bihotza, eta
antolatzaileek nabarmendu dute Udabe-
rriko Lurra Taupaka festan izan den jende
gehiena ordura arte Biolurren batzarretan
egon gabea dela, profil urbanoa duena, eta
oso positibo baloratu dute hori, erakusten
baitu Amillubi proiektuaren funtsetako
bat: elikadura burujabetzaren bueltan la-
borariak eta kontsumitzaileak elkarlanean
jarri dituela.

"BI URTEAN ORDAINDU BEHARKO DUGUN DIRUAREN ERDIA LORTU DUGU"

Amillubi proiektua zertan den eta bere
izaera zein den azaldu diete goizean
festara bertaratu diren herritarrei, be-
rau martxan jartzen lanean ari diren
talde eragileko hainbat kidek. Bost hek-
tarea baso eta lau hektarea laborantza
lurrek osatzen dute oraingoz Amillubi
proiektua. Ibaiaren ertzean egotea al-
txorra da laborantzarako. Amilibia ba-

serriak bi bizitza ditu eta horietako bat
da Amillubi proiektuak eskuratu duena;
beste erdia Biolur elkarteko kide den
familia batek erostia du eta ortu ederra
du martxan Amillubi proiektuaren on-
doko lurretan.

Kideek azaldu dutenez, Amillubi
proiektuak 390.000 euro behar ditu
lurrak, baserria eta baserriaren kon-
ponketak ordaintzeko. Baloratu dute
baserria saldu dien familiak bi urteko
epea eman diela ordaintzeko. "Gure



ARNAITZ RUBIO



AMILLUBIren kamisetak salgai

Laborantza ekologikoaren aldeko Biolur elkarteak eta ARGIAk elkarlanean atera dituzte kamiseta hauek.

22 euroan daude salgai eta erosita ekarpena egingo diezu Amillubi eta ARGIA proiektuei.

DISEINUA ETA AUKERAK:

Ione Larragoren ilustrazioa eta "Lurra Herriari Deika" lema daramatzate. Bi kolore daude aukeran: gordin naturala eta kafesne kolorea. Forma bera dute denek, zabala.

SALMENTA PUNTUAK:

Amillubiren aurkezpenetan, azoketako Biolur kideen mahaietan eta ARGIAren Azokan: azoka.argia.eus helbidean.

helburua proiektua zorpetu gabe abiatzea da", azaldu du Amillubiko kide batek. Finantzazioa lortzeko hainbat bide dituzte martxan: herritarren artean diru bilketa kanpaina abiatu zuten abenduan eta maiatza bukaerarako 150.000 euro lortzea jarri zuten erronka. Lerro hauek idaztean 110.000 euro ziren bertan jasotakoak (www.amillubi.eus helbidean egin daiteke ekarpena). Horrez gain, udal, erakunde eta enpresetara jo dute proiektuaren berri ematera eta sustengu bila. Kideek adierazi dute gaur gaurkoz finantzazioaren erdia lortua dutela eta horrek arnasa eman diela bide hori lantzen jarraitzeko.

Bakoitzak bere etxean egiten duen laborari edo abeltzain lanaz gain, Amillubi proiektuko bileretan eta lanetan martxa handia daramate talde eragileak osatzen duten hamabost lagunek. Proiektua ezagutzera emateaz eta diru bilketa egiteaz gain, Amillubiko lurra martxan jarri dute udaberrirako. Ho-

rretarako, hainbat auzolan egin dituzte, orain arte Biolurreko bazkideen artean, lurra prestatzeko eta azpiegiturak atontzeko. Porru haziak erein dituzte, landare ekologikoak lortzeko dagoen hutsunea ikusita, behar horri erantzuteko asmoz. Behin auzolanei martxa hartuta, aurrera begira deialdi irekiak egingo dituzte, nahi duten herritarrek ere parte hartzeko aukera izan dezaten. Artoa eta babarruna ereitea izango da hurrengo auzolana.

Azpiegituran egin dituzten txukunketen artean, berritzaileena azaldu diete Udaberriko Lurra Taupaka festan bildu diren herritarrei: Amilibia baserriaren komun eta arraskako "ur grisak eta beltzak" tratatzeko fitodepurazio sistema. Baserriaren parean hareaz eta horren antzeko testura duten gaiez osatutako eremu bat prestatu dute, eta bertan hainbat landare landatu dituzte. Ura bertatik pasatu arazten dute eta prozesu horren ondorioz ur depuratua jasotzen dute, ondoren kanalizatzeko.

ARNAITZ RUBIO



Ezkerreko orrian lehen argazkian, fitodepurazio sistema. Oholtza gainean, Mejillon Tigre poesia errezitatzen eta *Gregoren* bakarrizketa. Festako beste gune batzuk: haurren txokoa, bertako produktuen txosna eta bazkarirako paella prestatzen kanpoan prestatu zuten sukaldean.

"Jende askok galdetu digu baserria zertarako erabiliko dugun. Gure lehen-tasuna lurra da, eta oraindik ez dugu eraikinari lotutako proiekturik zehaztu. Pentsatzen dugu gune zabal bat atonduko dugula, bertan ikastaroak eta topaketak egin ahal izateko", aurreratu du Amillubiko kide batek.

BIBA BESTA

Adin guztietako herritarrek gozatu dute Udaberriko Lurra Taupaka festaren egitarau oparoa. Antolatzaileek asko eskertu diete artistei haien inplikazioa, musutruk egindako lanari esker, egun horretan bildutako ekarpenak Amillubi proiektura bideratuko baitira. Festa betea izan da, bor-bor egin du umorez, ikuspegi kritikoz, soinu eta bibrazio onez. Herritarrak asmatuko du artista hauen hurrengo emanaldietara joanda: Tantai kooperatibarekin baso bainua; *Enekoach*-ekin (Antton Telleria) lurrarekin konexio umoretsua; Euskal Herriko Batukada Feminista Sarearen

AMILLUBIren aurkezpenak

HONDARRIBIA

Maiatzak 21

11:00etan BDSKoopen.

DONOSTIA

Maiatzak 23

18:00etan Teila Fabrikan.

ALGORTA

Maiatzak 29

19:00etan Azebarri Kultur Elkartearen.

emanaldia; Itziar Saenz de Ojerren *clown* ikuskizuna; Beatriz Egizabalen bakarrizketa umoretsua; Mejillon Tigre-aren poesia errezitaldia eta musikari hauen kontzertuak: Pelax, Babarrunba eta 3zur.

Amillubi lantaldeak iragarri du udaberriro festa egiteko asmoa duela, eta udazkeneko hausnarketa kolektiboa, beraz, izango dira aukera gehiago Amillubi bertan gozatzeko eta sustengua erakusteko. Lehen festa hau gozatu duten hainbat herritarrek zera adierazi dute kamera aurrean, festara etortzeko haien motiboez eta Amillubi proiektuaz galdetu zaienean: "Lurra babestea lehen-tasuna da garai honetan", "elika-dura burujabetza estrategikoa da", "lurrarekin errespetuzkoa den laborantza ezinbestekoa da", "lurra ondare komun bihurtzea funtsezkoa dela", "proiektua kolektiboa izateak balio handia du", eta ia denek nabarmendu duten ideia hau: "Horrelako proiektu gehiago behar ditugu". ●

Animalien askapena akademiatik aztertzen

Ertz askotatik landu dute antiespezismoa Animalia Ikasketa Kritikoan EHUko I. kongresuan; hala nola literatura, interseksionalitatea, komunikabideak, zinema eta historia ikertu dituzte. Estibaliz Ania Valle Ruiz de Garibay eta Surama Lázaro Terol ikerlariak literaturari eta interseksionalitateari erreparatu diete, hurrenez hurren.

 OLAIA L. GARAIALDE  LINAS KORTA

Animalien askapenaren inguruan ikertu, ikerlari antiespezisten artean saretu eta antiespezismoa akademiara hurbildu. Horiek dira kongresuaren helburuetako batzuk. EHUk eta UPF-Centre for Animal Ethics ikerketa zentroak antolatu dute kongresua eta ehun lagun inguru elkartu dira. “Antiespezismoari ikusgaitasuna eman, antiespezista potentzialei akademiaren munduan militatzeko aukera eskaini eta ikasleak motibatu nahi ditugu ikerketetan gaia aintzat hartzeko”, azaldu du Irene Barañanok, antolatzaileetako batek.

Estibaliz Ania Valle Ruiz EHUko ikerlariak, bere parte-hartzean, literaturaren bidez espezismoaren zenbait adibide eman eta gaur egungo testuinguruarekin zer-nolako harremana duten landu du. Horretarako, XVII. mendeko literatura aztertu du; zehazki, Cyran de Bergerac (1619-1655) idazle, dramaturgo eta pentsalari frantsearen liburu baten pasartea: *L'autre monde ou Les États et empires de la lune ou Les États et empires du soleil* (Beste mundua edo Ilargiaren Estatuak eta inperioak edo Eguzkiaren Estatuak eta inperioak) liburukoa. Zientzia fikzioaren aitzindarietako bat izan zen Cyran de Bergerac: “Zientzia fikzioaren bidez garai horretako zenbait aspektu kritikatzin zituen; besteak beste, fede katolikoa, absolutismoa eta antropozentrismoa”.

Txoriek agintzen duten erreinu batera doan gizonaren istorioa kontatzen du pasarteak. Bertan, gizakiz besteko animalien kontra gizakiek egindako delituengatik epaituko dute gizona. Ikerlariak nabarmendu du garai horretarako “oso ausarta” dela. Testua irakurtzean kontuan hartu behar da idazleak *gizona* hitza erabiltzen duenean gizakiei erreferentzia egiten die la eta ez soilik gizonei. Izan ere, XVII. mendean, emakumeak eta beste identitate batzuk ez ziren subjektu politikotzat hartzen: “Emakumeak ere gizonen menpeko zeuden, animaliak bezala gizonen zerbitzura eta aginduetara”.

“Bestelako ingurunean bizi gaitezke, eta armonian bizitzeko aukera dago. Baina horretako, gizakiok geure buruari esleitu diogun nagusitasunari uko egin behar diogu”
Estibaliz Ania Valle

GENEALOGIAREN GARRANTZIA

Pasarteko protagonistak lapurtxori batekin egiten du topo epaiketean. Gizonak aurreuposatzen du arrano batek gobernatzen duela, eta hortaz, arranoak epaituko duela, baina lapurtxoriak esaten dio oker dagoela, eta gizakiek gobernuburua nor izanen den erabakitzeke erabiltzen dituzten irizpideak ez daudela ongi. Txoriaren arabera, gizakien “sinesmena” da pentsatzea soilik gobernatu dezaketela “indartsuenek”, “handienek” eta “krudelenek”. Horren ordez, lapurtxoriak subiranoa aukeratzeko erabiltzen dituzten irizpideak nabarmentzen ditu: “Gure politika oso bestelakoa da; ahulenak, gozoenak eta bakegileenak aukeratzen ditugu errege izateko. Horrez gain, sei hilabetetik behin beste ahul batzuegatik aldatzen ditugu, kontra eginez gero mendekua hartu ahal izateko. Gozoak aukeratzen ditugu inork ez gorrotatzeko. Eta bakegileak izatea nahi dugu gerrak saihesteko, gerrak injustizia guztien sorrera direlako”.

Espezismoaren zenbait adibide eman ditu lapurtxoriak: “Nagusitasun irriharri horren ondorioz, gizonak bere gain hartzen du bizitzeko eta hiltzeko gure eskubidea, eta esklabo bihurtu, gatibu egin, ito eta jaten gaitu eta nobletzat ditueni hiltzeko gaitasuna ematen die”.

Ikerlariaren arabera, testuak antropozentrismoa zalantzan jartzen du: “Autoreak erakusten digu bestelako



ingurunean bizi gaitezkeela, eta armonian bizitzeko aukera dagoela. Baina horretako, gizakiok geure buruari esleitu diogun nagusitasunari uko egin behar diogu". Horrekin batera, gizakiz besteko animaliak ere subjektu politikoak direla aldarrikatzen du idazleak.

Gaineratu du antiespezismoaren genealogiari erreparatzea mugimendua "indartzeko" baliagarria izan daitekeela: "Askotan herri mugimenduan ahaztu egiten zaigu genealogia. Garrantzitsua da horri erreparatzea eta adibideak bilatzea; adibiderik ez duzunean zaila da urratsak ematea. Mugimendu antiespezista egituratzen eta historia antiespezista garatzen laguntzen du". XVII. mendea urrun dagoela iruditu arren, "lotura handia" du gaur egungo testuinguruarekin eta aldarriekin: "Genealogiak pentsamendu sozio-politikoaren oinarriak ezartzen lagundu dezake".

HAZTE SELEKTIBOAREN ONDORIOAK

Cyran de Bergeracen testua gizakien eta gizakiz besteko animalien arteko botere harremana islatzen duen pasarte bat da, baina ez bakarria. Horien adibi-



Kongresuan, literatura antiespezistaren inguruko tailer bat egin zuten.

"Arrautza gehiegi erruteak kalte ugari eragiten dizkie oiloei; esate baterako, arrautzak apurtzea eta trabatzea, prolapsoak, hezur ahultasuna eta peritonitisa"

Surama Lázaro

de ugari daude fikzioan zein fikziotik kanpo. Surama Lázaro UNEDeko antropologoak ez fikziora jauzi egin, eta arrazializazio mekanismoei eta desgaitasunari erreparatu die kongresuan. Broiler oiloak eta oilo erruleak, eta hazte selektiboak horiengan izan duen eragina aztertu ditu.

Sunaura Taylor akademikoaren eta aktibista desgaituaren lana ere aipatu du. *Crip* liburuaren idazlea da, eta bertan desgaitasunaz eta gizakiz besteko animalien zapalkuntzaz hausnartzen du. Taylorren arabera, kapitalismoak eta espezismoak "desgaitzen" eta "hipergaitzen" dituzte animaliak, sistemak geroz eta gehiago produzitzera behartzen dituelako eta ondorio larriak eragiten



Linás Korta, Aitor Garmendia (Tras Los Muros) eta Carmela Fernández fotokazetariaren lanekin erakusketa egin zuten.

dizkietelako. Oiloen hazte selektiboa horren adibide bat da.

Vent sexting-a edo txiten sexu bereizketa 1920. urtean Japonian sortu zen, eta txitak sexuaren arabera bereizteko teknika da. Jaió eta berehala txiten sexua jakiteak arrautza eta haragi produkzio-ara bideratuta dagoen hazte selektiboa “areagotu” duela nabarmendu du Lázarak: “Helburua da ahalik eta produktibitate handiena lortzea”. Ondorioz, broiler oiloak “azkarrago” hazten direla eta oiloek arrautza “gehiago” erruten dituztela salatu du.

1940ko hamarkadan, broiler oiloek 112 egun behar zituzten 2-25 kilo -merkaturatzeko pisua- lortzeko. 1990eko hamarkadan, pisu hori 37-43 egunetan lortzen zuten. Azken hamarkadetan, gerroz eta lehenago lortzen dute merkaturatzeko pisua, eta egindako ikerketen arabera, 2034. urtean 29 egun beharko dituzte. Horrek guztiak “ondorio larriak” ditu oiloetan; eragiten ditu hala nola anormaltasun eskeletikoak, gaixotasun metabolikoak, bihotz-biriketako sistemaren arazoak, gantz gehiegi eta immunitate-sistema ahuldua.

Red Jungle Fowl oiloek -etxekotutako oiloen eta oilarren aurretiko oiloak- ur-

tean 10-15 arrautza erruten zituzten. Hazte selektiboaren ondorioz, XX. mendean 140 arrautza errutera iritsi ziren. Aro modernoan, White Leghorn eta Rhode Island oiloak sortu zituzten, eta erruten zituzten arrautza kopurua bikoiztu zen. Gaur egun, haragi edo arrautza kontsumorako hautatuak izan badira, urtean ehun eta hirurehun arrautza artean erruten dituzte: “Arrautza gehiegi errutiek kalte ugari eragiten dizkie oiloei; esate baterako, arrautzak apurtzea eta trabatzea, prolapsoak, hezur ahultasuna eta peritonitisa”.

LA VIDA COLOR FRAMBUESA SANTUTEGIA

Kasu praktiko baten bidez sakondu du gehiago Lázarak, eta Arabako La vida color Frambuesan oiloekin egiten duten lana azpimarratu du. Santutegia espezie ugariaren etxea da eta helburua da animaliak erreskatatzea, zaintzea eta antiespezismoaren inguruko kontzientzia zabaltzea.

Maria, santutegietako sortzaileetako bat, santutegira iristen ziren oiloak behatzen hasi zen duela hamaika urte. Antzeman zuen, santutegian egon arren,

oiloen egoera ez zela hobetzen eta goiz hiltzen zirela. Hortaz, hiltzen ziren oiloek nekropsiak egiten hasi zen, eta ikusi zuen erreprodukzio sisteman tumoreak, arrautza apurtuak, infekzioak eta beste zituztela.

Konponbide bat bilatu nahian, 2013. urtean kirurgikoki oiloen erreprodukzio sistema kentzea erabaki zuen, baina obarioa kentzean odol-galera handia izateko arriskua zegoen eta asko hiltzen ziren. Hortaz, obiduktua kentzea erabaki zuen, baina horrek ere ez zuen arazoa konpondu. Osteon, larruazalpeko inplante hormonalak jarri zizkien obulazioa geldiarazteko. Orduetik, sistema hori erabiltzen du.

Lázarakoren arabera, santutegian egindako lanak urrats bat gehiago eman du gizakiz besteko animalien askatasunean: “Ulertu behar dugu saihestezina dela arrazializazio praktikengatik oiloak ez gaixotzea. Horregatik, ez da aski karioletatik kanpo egotea. Ezinbestekoa da baliabideak aurkitzea antiespezistok zaintza egokia emateko eta kalteak gutxitzeko”. Oiloena adibide bat da, baina Lázarakoren ustez, animalia guztiekin hartu beharreko neurriak dira. ●

OROIMEN HISTERIKOA

Nagore Irazustabarrenaren podcasta

*Historia diren istorioek txoratzten
gaituztenontzako saioa*



Asteartero
ARGIAN eta
audio plataforma
guztietan

 ARGIA.eus/podcast

BORROKAK ETA LIBURUAK



JOSEBE BLANCO ALVAREZ

Konturatu orduko apirila joan da, bere intentsitate eta kolore guztiekin. Egun beroak, epelak eta hotzak utzi dizkigu. Ostadarra eta izotza. Euri jakak eta bero sapa. Jairo berri diren arkume apurrak belardian dabilzan bitartean, labanak eten egin du bititza eman duten hiru ardien arnasa. Ardia bi arkume munduratsen ari dela, putreek bapo jan dute. Egunean bitan bildutako esnea, jada gazta-ganbaran dugu gordeta, ontzen. Apirilaren 13an atera ziren aurten egindako lehenbiziko gaztak etxetik, urdinak denak ere. Apirilak hartu ditu era guztietako borrokei eskainitako egunak eta liburuentzako tarteak. Borrokek eta liburuek egin dute bat apirilarekin.

Baserritarren nazioarteko borroken eguna izan zen apirilaren 17an. Gure egutegian, behinik behin, San Ixidro



Apirilaren 17an baserritarren nazioarteko borroken eguna izan zen. Via Campesinak egindako kartela.

eguna baino garrantzitsuagoa. Bihotzean gordetako efemeridea, egunero bizi duguna: Brasilen poliziak 1996an eraildako hemeretzi nekazariak gogoan. Munduko toki askotan luraren aldeko borrokek bizi-bizi jarraitzen dute; bizirik atera direnek malkoz erantzi nahi diete nekazarien gorpuei injustiziaz jantzitako lokatza.

Badira lekuak, hala ere, gure malloen faltan direnak. Gaza, adibidez. Ospitaletan odol eskasia dagoen bezala, hemengo nahiko malko ez dago gorpu haiek garbitu eta odolustea gelditzeko. Sionistek erauzitako olibondoak birlan-datzeko. Nahiko oihi ez, lehergailuen burrunba isiltzeko.

Hemen borrokek beste forma batzuk hartzen dituzte, momentuz. Sotilagoak, gehienetan; kirrinkariak, askotan eta batzuetan pornografikoak. Maiz alea lastotik bereiztea zaila izaten da, eta ez gara gauza sare sozialen harien artetik alerik salbatzeko. Aletze lan horretan aurrera zoazela, bat-batean, jakin duzu bi egunero baserritar batek bere buruaz beste egiten duela estatu frantsesean –adibidez–. Hiltzeko modu asko daude, lehergailuak ez dira arma bakarra.

Suizidatu diren lagun eta ezagunen presentziak ere gorpuzten dute zure borroka-rentzua.

Eta horien guztien berri izan dugu baten batek jaso egin duelako. Gorpue-tan odolez eta malkoz idatzitako horiek paperean tintaz bildu dituelako, gure amonak amantalean aleak bezala, banan-banan, tentuz, alerik gal ez dadin. Jabetzen ote gara zer garrantzitsuak ziren eskribauak eta zer inportanteak diren idazleak?

Izan ere, askotan, jasotakoak badu asmo bat, gogo bat, hitz bakoitzaren hautaketan: gerora metamorfosia gertatzea, alea ernaltzea. Zertarako idatzi, bestela, Brasilez, Gazaz edo mendialdeko suizidez, ez bada, lurraldeotan bititza loratzeko?

Liburuaren egunaz ari garenean, finen, notario iraultzaile horietaz ari gara. Adi, ez nahastu gorteetako idazkari-ekin; horiek ez baitira idazleak, irabazle-ekin gurtzaileak baizik.

Goarde ditzatela liburuek iraultzen existentzia eta iraultzaile anonimoen bititzak, etorkizunean bititza lora dadin.

Betoz apirilak horien berri ematera, kukuarekin batera, bizirik gaudela esatera. ●

Nafarroa, lurralde ekologikoa

ETORKIZUNA EKOLOGIKOA DA aurrera goaz!

Ezagutu ekoizpen ekologikoaren datuak

cpaen.org
navarraecologica.org

ARGIA Maiatzak 19, 2024

A ZE FAUNA!

DRAGOITXO ARRUNTA ETA KLIMA ALDAKETA: ETSAIA LAGUN DUZUNEAN...



IÑAKI SANZ-AZKUE
ARANZADI ZIENTZIA
ELKARTEKO KIDEA

Euskal Herriko guneko batzuetan bizilagun ezaguna dute jada dragoitxo arrunta. Nafarroa hegoaldean, esaterako, urteak daramatza (gutxienez 1980ko hamarkadatik) bertako hormetan eta etxe inguruetan gora eta behera, batez ere gau partean, argia duten inguruetan, jatena non aurkituko. Euskal Herriko kostaldean eta barnealdeko leku askotan, ordea, oraindik ere harridura sortzen duen animalia da. Etxeren batean aurkitzen den aldiro, jendearen atentzioa deitzen du. Eta ez da harritzekoa. Izan ere, dragoitxoa Euskal Herriko txoko askotara iritsi da, baina duela urte gutxi apenas ikusten zen.

Dragoitxo arruntak gauza zaila lortu du: etsaia lagun egin du. Klima aldaketak eragin dituen neguen berotzeak baliatu ditu aurretik konkistatu gabeko eremuetan gelditzeko, eta hala, egun jada bertako espezieen artean bat gehiago da; neguak igarotzeaz gain, leku askotan ugaldue ere egiten dela ikusi baita. Urte gutxian ikustea ia ezinezkoa izatetik, populazio egonkorra izatera igaro da euskal kostaldean. Dragoitxoa gelditzeko etorri da.

Etorri da, bai, baina nola etorri den ere interesgarria da, dragoitxoa hobeto ezagutu nahi duenarentzat. Gekoen taldeko narrasti txiki honek bai baitu ezaugarri bereizgarri eta harrigarri bat. Horman gora eta behera ibiltzeko ikaragarritzko gaitasuna du. Hori dela



ANDER IZAGIRRE

eta, ikusi izan da trenaren zirrikitueta sartuta, eta hala bidaiatu du askotan, gizakiaren laguntzaz, alde batetik bestera, ezkutuan, eta aurkitu ditu bizitoki berriak. Arestian esan bezala, aurretik agian egokiak ez zirenak, baina klima aldaketa lagun, egokitu zaizkionak.

Intsektujale amorratua da. Gautarra da, eta etxeko hormetan ikusten da maiz, farolen edo argien inguruan askotan, bertara gerturatzen diren intsektuen bila. Armiarma zalea ere bada, eta horregatik, askok ez dute begi txarrez begiratzen: dragoitxoa etxean duenak armiarma gutxiago izateko aukera ere izango baitu!

Zientziak, alabaina, baditu oraindik ere erronka politak espezie honekiko. Oraindik ezezaguna da zein ondorio dituen bere presentziak. Kalterik egiten ote dien bertako espezieei edo

bizitokiari. Espezie kanpotarra zena, bertako espezie bihurtzeko bidean da, eta badirudi Europan goranzko joera ere izango duela, tenperaturak igotzen doazen heinean. Baina, hori bezain garrantzitsua izango da jakitea zein eragin izango duen bere etorrerak. Espezie kanpotar guztiak ez baitira inbaditzaileak.

Bere tamaina txikiarekin (15 cm buztana gabe) eta gorputz gris-arre kolorekoarekin, dragoitxoak hainbat zientzialariren arreta deitu du eta hortik atera dira hainbat asmakizun, gero merkatura eramane direnak. Aurretik ere begiratu zaiola, baina, zalantzarik ez da, etorkizunean ere dragoitxoa jarraitzea ez dela alferrikako kontua izango. Izan ere, inoiz ez da jakiten etsaia lagun duenak zein bide hartuko duen... ●

DRAGOITXO ARRUNTA *Tarentola mauritanica*

TALDEA: Ornoduna / Narrastia.

NEURRIA: 15 cm inguru, isatsik gabe.

NON BIZI DA? Eremu urbanoan, batez ere.

ZER JATEN DU? Ornogabeak.

EZTI IHINTZEZ EGINDAKO IHINTZ EZTIA



HONEYFROMSPAIN.COM



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Zein da zuretzat zuhaitzik gozoena? Janari gozoenak ematen dituen? Erleentzako eztigai, lore gehien eskaintzen duena? Ez ba! Ezkur jendearen artekoak dira zuhaitzik gozoenak.

Haritza (*Quercus robur*) eta artea (*Quercus ilex*) dira gurean gozo gehien sortzen duten zuhaitzak eta hara zer lanak ematen dizkieten erleei. Eztia loreetan bildutako nektarrarekin egiten dute erleek. Lore saso nagusia udaberria da; egutegiari ezikusiarena egin eta uda erdian eguna dezente moztu den arte luzatzen dena. Hor buru-hegal aritzen dira eultzeko erreserbak besteak beste eztiz osatzen.

Uda erditik atzera, beste abaraskako eztia izan ohi da. Loreak bakandu ez ezik ia desagertu dira eta hurrengo negu amaierako sasoi berria urrun dago, oso urrun! Tarte hori laburtu eta goxatuko duen ihintza etorriko da. Uda erdian hasten dira ihintz handiak; eguna dezente laburtu da, tenperaturak beherako joera ez

du utziko eta hezetasuna ugaritu egingo da. Emaizta ihintz latzak, eta haien eraginez hezeberak diren landareen sufrimendua: tomateak (*Solanum lycopersicum*), mahatsondoak (*Vitis vinifera*) eta abar.

Erleen uda eta udazken ataria goxatuko duena beste ihintz bat izango da, orde. Ezti ihintza. Haritzak eta arteak sasoi horretan zenbaezina den intsektu mordoaren bisita izango dute. Bisitak ez dira onez-onezkoak. Zorri, kotxinila eta abar jatera datoz eta han, hemen, harago, ziztada eta koskadizo ugari egingo dizkiete. Intsektua elikatu denean hor uzten du zauria, eta hura jario eta jario, zuhaitzak izerdia dario nonahitik. Ba erleek izerdi hori jasoko dute. Izerdi hori hostoetan-eta geratzen denean, gozoa denez, lika antzeko ispilu bat sortzen du, ihintza balitz bezala, eta gozoa denez "ezti ihintza" esaten zaio. Janaria sortzeko lehengai nektarra erabili beharrean ezti ihintza erabiliko dute, eta harekin eultzean ez dute eztia egingo, ihintz ez-

AGENDA

MAIATZAK 16 ZUMAIA: Josebe Blancoren hitzaldia *Hausnarrean*, ardiek egin naute artzain liburutik abiatuta. 18:30ean Emakumeon* Etxean.

MAIATZAK 17 AMOROTO: Garbiñe Larrearen eskutik, "Sendabelarrekin gibel garbiketa tailerra". 17:00etan Kultur Etxean. Izena emateko: kultura.amoroto@gmail.com edo 946 842 549.

MAIATZAK 17 LEITZA: Josebe Blancoren hitzaldia *Hausnarrean*, ardiek egin naute artzain liburutik abiatuta. 18:00etan.

MAIATZAK 18 ARTEA, ARRATIA: Josebe Blancoren hitzaldia *Hausnarrean*, ardiek egin naute artzain liburutik abiatuta. 11:30ean Herriko Bentan.

MAIATZAK 23 ARRASATE: Garbiñe Larrearen eskutik "Zazpi sendabelar ukendua egiteko tailerra". 18:00etan Kultur Etxean. Eman izena bertara zuzenduta.

tia egingo dute. Ezti ihintzez ihintz eztia egingo dute.

Ihintz eztia ez da ezti arrunta bezalakoa. Ilunagoa da eta biziagoa, indartsuagoa; osagaietan ere zuhaitz horien loreen eztia baino aberatsagoa omen da: aminoazido eta mineral gehiago ditu.

Uda amaieran, *Curculio elephas* ize-neko gurgurioak ezkurri erasotzen die; ezkurrari eusten dion ezkur-azalean arrautza jarri eta handik sortzen den harrak zulatu egingo du. Zauri horretatik ere jarioa dario, ezti ihintza, eta erleek ederki jasoko dute. Intsektu koskarik gabe, eguraldi gorabeherak tarteko ezkurra bera eta azalaren arteko haustura bati egotzen diote zenbaitzuek jarioa. Batera edo bestera, ezkur eztsua. Eta ihintz ezti gehiago negurako.

Erleak lagundu nahi dituzula? Bai, loreak jarri, noski, baina ezkurak erein. Agendan jaso datorren negurako lana. ●

JA(KI)TEA

BETIKO ETA BERTAKO SUKALDARITZA SUSTATZEKO ELKARTEA



GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

2009an sortu zen Ja(ki)tea elkar-
tea zenbait jatetxe, sukaldari eta
gastronomia kritikariren arteko
elkarlanetik. "Hasiara hartan, Gi-
puzkoako 14 bat jatetxe elkartu ginen,
baina pixkanaka hazten joan da proiektu-
a, eta gaur egun 37 gara", azaldu du
Xabier Zabaletak, Donostiako Aratz jate-
txeko eta Ja(ki)tea elkarteko kideak. Su-
kalde berritzaile edo modernoak hartu
duen nagusitasunaren aurrean, Euskal
Herriko sukaldaritzaren tradizionalar-
merrezi duen lekua egiteko asmoz abiatu
zuten ekimena: "Konturatzen ginen gure
sukaldaritzaren mota hau, nolabait, biga-
rren mailakotzat hartzen zela, eta, aldi
berean, bertako produktu gehien erabili-
zen zutenak ginel".

IRIZPIDE PROPIOEN BEHARRA

Sukaldaritzarekin eta hurbileko produk-
tuekin lotutako hainbat egitasmotan har-
tzen du parte Ja(ki)tea elkarteak, eta ur-
teotan ekimen ugari egin dituzte bertako
gastronomia tradizionala hedatzeko eta
bultzatzeko: erakustaldiak, haragia eta

arraina prestatzeko txapelketak, forma-
kuntzak... "Bestetik, Euskal Herriko zigilu
propioa ateratzeko proiektu handi batean
sartuta gaude. Asko hitz egiten da euskal
sukaldaritzaz, baina Frantziako Michelin
edo Espainiako beste zigiluak ditugu ere-
du. Non daude gure irizpideak?", galdetu
du sukaldariak. Elkartearen ekimen horren
parte izan arren, Euskal Herri osoko 300
bat sukaldari ari dira lanean.

Ja(ki)tea proiektuko ateak zabalik
dituztela dio Zabaletak: "Gure ustez,
euskal gastronomia ez da sukaldari eta
jateetara mugatzen, elkarre gastro-
nomikoei eta bestelakoek ere garrantzia
handia dute". Bertako sukaldaritzaren
kultura eta egiteko moduak jateetara
ez ezik, eskoletako, ospitaleko eta
bestelako jantokietara ere eramane nahi
dituzte. Baina horretarako laguntza es-
kasa jasotzen dutela salatzen du.

"EKOIZLEEN LANAREN SEGIDA DA GUREA"

Bertako eta garaiko usain eta zapore-
kin egiten dute lan elkarteko kideek,

baita Aratz jatetxeak ere: Nafarroako
orburuak eta zainzuriak, Idiazabal gaz-
ta, Arabar Errioxako ardoak, udaberri
zizak, euskal kostaldeko arraina... das-
tatu daitezke menuan. Azpimarratzen
duenez, egun zabalduago dago bertako
produktuen garrantzia, baina 2009an
elkartea abiatu zutenean gauzak beste-
lakoak ziren: "Garai hartan inork gutxik
hitz egiten zuen horri buruz", dio.

Izan ere, ekoizleek kalitatezko produk-
tuak eskaintzeko egiten duten lanaren
segidatzat du Zabaletak sukaldari-
en lana, kate beraren parte direla
dio. "Lehengai horiek gabe ez genuke
ezer egingen". Horregatik, estatuan edo
nazioartean barrena mugitu direnean,
beti daramatzate hemengo produktuak.
"Egia da gure jateetara %100 bertako
produktua erabiltzea ezinezkoa zaigula
oraindik, baina ahal den neurrian hor-
retan ari gara saiatzen, eta gehiago sa-
kontzea da helburua", dio. Elkartearen
webgunean dioten bezala, "galtzailerik
izango ez duen ekonomia zirkular baten
mesedetan". ●



Nekazaritza ekologikoa, iragana eta etorkizuna lotzen.




Euskadiko Nekazaritza eta
Elkadura Ekologikoen
Kontseilua
Consejo de Agricultura y
Alimentación Ecológica
de Euskadi

Babesleak:



Europar Batasunak
kofinantziazua





NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Erroldan zentsuratuak

Erroma, K.a. 443. Lehenengoz zentsoreak aukeratu zituzten. Handik bi mendetara Errepublikako magistraturarik garrantzitsuena izango zen zentsurarena. Bost urtean behin bi zentsore aukeratzen zituzten, kontsul izandako senatarien artean.

Erantzukizun handiko kargua zen: nagusiki hiritarren erroldaz (*census*) arduratzen ziren eta hortik datorke izena, baina finantza publikoen zenbait alderdi ere haien esku zeuden, besteak beste, hurrengo bost urtetan Errepublikak zer obra publiko ordainduko zituen erabakitzea. Gainera, moralitate publikoa ikuskatzea ere haien ardura zen eta, maiz, eremu pribatuan ere sartu ohi ziren.

Beraz, erromatar batek modu desgokian jokatzeko bazuen edo erromatar tradizioaren eta ohitura onen kontra jardunez gero, zentsoreek erroldan haren izenaren ondoan markatzen zuten egindako okerra, hau da, "zentsuratu" egiten zuten. Askotarikoak ziren norbait erroldan markatzeko arrazoiak: ezkontza ez errespetatzea, gehiegizko luxua, norberaren erantzukizunak ez betetzea, esklaboekin krudela izatea... *Equites*-en edo zaldunei dagokienez, adibidez, zaldia behar bezala ez zaintzeak erroldan markatua izatea eragiten zuen.

Erroldan oharrak idazteaz haratago, beste ondorio batzuk ere ekartzen zituen erromatar moralitate estua modu batera edo bestera hausteak: erbestera-




LOUVRE MUSEOA

Domitius Ahenobarbusen aldareko K.a. II. mendeko erliebe honetan, zentsorea ageri da bere funtzio nagusia betetzen: hiritarren errolda osatzen. Errepublikako moralitatea zaintzeaz ere arduratzen zen zentsorea eta hortik dator egungo zentsura kontzeptua.

tzea, estatus soziala galtzea... *Equites*-en kasuan, zaldia konfiskatzea izan ohi zen zigorra; finean, zaldi horiek Errepublikak publikoki finantzatzen zituen.

Hala ere, jarrera okerrak zuzentzen zituztenek barkamena lortzeko aukera ere bazuten eta erroldan zituzten oharrak ezabatzen zizkieten. Literalki, markatuak izateari uzten zioten.

K.o. 22. urtean, Errepublika amaitu eta Inperioa ezarri zenean, Augusto enperadoreak bere gain hartu zituen zentsorearen funtzioak eta, hala, zentsura magistratura gisa desagertu zen ofizialki. Baina zentsura kontzeptua, egun duen esanahia hartzen joan zen eta indarrean (eta indar handiz) jarraitu zuen, gaur arte. ●



CABAH

Australiako aborigenen buztingintza

Australiako ipar ekialdean dagoen Jiurru uhartean duela 2.000-3.000 urteko zeramika zatiak aurkitu dituzte James Cook unibertsitateko eta Australiako Ikerketa Kontseiluko kideek. Australian orain arte aurkitutako zeramika arrastorik zaharrenek dira. Arrastoen azterketa geologikoak adierazi du zeramikazko pieza horiek uhartean bertan egin zituztela.

Ikerlanaren arabera, Queensland iparraldeko aborigenek haremanak zituzten Ginea Berriko komunitate buztingileekin eta haiengandik ikasi omen zuten zeramika ekoizteko teknika.

Aurkikuntza honek bertan behera uzten du aurrezkuak bultzatuta orain arte ontzat eman den teoria: zeramika kolonizatzaileek eraman zutela Australiara. ●

OLATUKOOP



OLATUKOOP / IDO PHOTOGRAPHY

ESEk euskaraz ere badu esanahia

 ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Olatukoopek hamargarren urteurrena ospatuko du eta horren berri ematea ondo legoke”, jaso nuen mezua. Aurreko astekaria dagoneko etxean baduzu –bidalketen kontua nola dagoen ikusita, auskalo!– ohartuko zinen, irakurle, erreportaje sakon bat datorrela gaiaren inguruan. Duela hamar urte ESE siglak (Ekonomia Sozial Eraldatzailea) modan jarri zituzten horiek bizirik diraute eta ARGIA ere sare horren parte da.

2014an hasi zuen bere ibilbidea ekonomia sozial eta eraldatzailearen norabidean Olatukoopek eta 2017an batu zitzaion ARGIA. Hasiera batean kide moduan eta bazkide bezala bizpahiru urteren buruan. Sarean sartu zen lehen urtea, ARGIAkoek oroitzen dute “lurra hartzeko” une gisara. Batzarretan parte hartzen hasi ziren, sareko beste eragileak ezagutzen, bakoitzaren egiteko erak eta sarearenak ulertzen... “Olatukoop eta ekonomia eraldatzailearen

bueltan dabilzan eragileen ekosistema askotarikoa bezain konplexua da eta pixkanaka ulertu beharreko zerbait”, azaldu digute.

ETIKETARIK GABEKO ESE

Langileen artean hausnartu eta erabakitako jautzia izan zen Olatukooopen sartzeta, noski. 2008az geroztikako gertakariak lagundu zioten ARGIAko lantaldeari beren jarduna ekonomia sozial eta eraldatzailearen bueltan kokatzen eta oharitzen, 1980an enpresa langileek beren esku hartu zutenetik, ekonomia eredu horretan ari zirela lanean, intuizioz edo etiketarik gabe.

2019-2020an pasa zen ARGIA bazkide izatera eta hala, sareko parte hartzean presentzia handiagoa edukitzera. Koordinazio Batzordean ibili zen ARGIA denbora batez Olatukooopen egituratze fasean eta astekarian 'Esperientzien Kuxta' atala martxan jarri zen sareko hainbat kooperatiba eta enpresa komunita-

Ongi etorri komunitatera!

Arrazoi hauek eman dituzte egun hauetan ARGIAko kide egin diren lagun batzuek, komunikabide independente hau ekonomikoki babestu eta proiektua bultzatzeko. Ongi etorri denei komunitatera!



“ ”

“Interesgarria iruditzen zait euskararen alde egiten duen ekarpena”.

Oiartzundik Beñatek

“Egungo gaien hausnarketarako informazioa euskaraz jasotzeko aukera ematen dit. Hedabide handienekin alderatuta, ARGIAk ikuspegi kritiko, zabalago eta serioago batetik aztertzen ditu gaiak”.

Donostiatik Joanesek

“Prensa euskaraz eta ezkertiarra irakurtzeko eta laguntzeko”.

Bilbotik Jon Anderrek

rriori ahotsa emateko. Azken bi urteotan egituratzea hobeto definitzea egokitu da eta etzabaidan parte hartu du ARGIAk. Olatukoopek, aldi berean, ekonomia ereduaz hausnartzeko tarte ireki dio ARGIAri enpresa barruan, gaiaz mintzatzeko eta egiteko zenbait forma birplanteatzeko; eta sareak balio dio ARGIAri mugimendu baten barruan kokatzeko, kazetaritza eraldatzailea egiten duen heinean. Olatukoopera ARGIAtik joaten diren ordezkariak ere aldatuz joan dira eta helburu batekin hartutako erabakia da: Olatukooopen inguruko ezagutza eta lana gehiago kolektibizatzea ARGIA barruan.

Azken batzarrean fase berri baterako ildoak zehaztu dira, baina aurretik, ospakizun festa, maiatzaren 18an, Donostian. Ospa dezagun eta gero geroakoak. ●

MUSIKA IRUDITAN (II)

Bideoklipak: aurpegia ala gurutzera

Musikariaren lana musika sortzea eta jotzea da. Baina soilik hori? Irudiak eta sustapenak gero eta pisu gehiago dute alor gehienetan, eta musikariak ere ez dabilta zurrumbilo horretatik aparte. Bideoklipa bilakatu da abesti edo disko bat kaleratzeko euskarri (ia) ezinbestekoa. Bai, bederen, lana ohi baino gehiago zabaltzea lortu nahi denetan. Proposamen musikalari geruza gehiago gehitzeko baliabidea ere bada. Ahalegina eskatzen du ordea: dela dirutan, dela denboran. Zeregin horri begira jarri ditugu bost musikari.

LANDER ARRETxea BEREZIARTUA

Ez dago denboran oso atzera egin beharrik. Urte luzez, irratiak izan dira abesti edo disko berria plaza publikora aurkezteko bidea. Hala dira oraindik ere, baina management (gestore) enpresa bat edo sareak ondo samar ezagutzen dituen taldekiderik izanez gero, azkar etorriko da proposamen osagarria: “Honi indar pixka bat eman nahi badiogu, bideoklipa egin beharko genuke”. Galdera bat ezkututzen duen baieztapen horri erantzun beharrean topatzen dute euren burua musikariek. Hala aitortzen du Uxue Amonarrizek. “Badago lege ez idatzi bat esaten duena kantu edo disko berri bat promozionatzeko bideoklipa behar dela. Eta helburua jakina da: jende gehiagorengana iristea”.

Ibilbidea eten berri duen Huntza taldeko kidea da Amonarriz. Ezin esan, haien kasuan, baliabide eraginkorra izan ez denik. Euskarazko abesti bat oinarri dutela egin diren bideoklipen artean, Huntza taldearen *Aldapan gora* da ikustaldi gehien pilatu dituen. Bi kanaletara dago igota, baina biak batuz gero ia 20 milioi aldiz ikusi da Youtuben. Zabaldu zuten lehen kanta da, eta irratian izandako ezusteko arrakastak jarri zuen dena martxan. “Management enpresak aholkatu zigun bideoklip bat egiteko, eta ezagunak genituen AZ Gaubelakoengana jo genuen. Oso denbora gutxian prestatu genuen dena, berehala zabaltzeko, baina ez genuen halako harrerarik espero”. Euskal Herrian bakarrik ez, Hego Amerikari eta Europako beste hainbat herrial-

Erreportaje serie bateko bigarren atala da hau. Lehenbizikoan, bideoklipak aztertu genituen bideogileen ikuspegitik (2.864 alea).

detan ere asko zabaldu zela gogoratzen du Amonarrizek.

Artean, hogei urteren bueltan besterik ez zituzten Huntzako kide gazteenek, eta ezezagunak zitzaizkien musika industriaren logikak. Azkar ikasi behar izan zuten. “Olatu oso handi bat etorri zitzaigun gainera, eta neurri batean, gogorra izan zen ito gabe aurre egitea. Salbatu gaituena, askotan, umorea izan da”. Saiatu dira “berezkoa” duten umore hori euren bideoklipetan islatzen. Zentzu horretan, sustapen ekintza bat baino gehiago izan direla dio Amonarrizek: “Entzuleengana gerturatzeko ere balio bideoklipek. Lehen hura batez ere, gure burua aurkezteko modu bat izan zen. Ez gintuen ia inork ezagutzen, eta haren bidez jakin zuen jendeak nor ginen, nola-koak ginen, zerk arduratzen gintuen...”.

LANIK FINENA ERE EZ DA BERMEA

Orain eta hemen ontzen diren bideoklip asko abesti bati irudi gutxi-asko egokiak jartzeko ahalegin soila baino gehiago dira. Arriguri, Badator... gisako ekoiztetxeek bikoiztu egin dute apustua. Nazioarteko joeretan begi bat jarrita, arte lan bilakatu dute jatorrian komunikazio tresnatik gehiago zuen lana. Kalitatezko baliabideekin, ahal denetan, baina baita, sosik ez denean, irudimena eta auzolana oinarri hartuta ere. Horrek ez du esan nahi, ordea, begirada artistikoarekin egindako bideoklip horiek besteen joko-eremu bera konpartitzen ez dutenik: bozgorailu edo bultzada izateko desirak eraginda jaiotzen dira.

Hala izan da, gutxienez, Iban Urizarren kasuan. Eginak zituen Amorante proiektuaren berri bideoz emateko zenbait ahalegin aurrez; Bira ekoiztetxearen eskutik, eta beti ere zuzenean egiten duen hori erakusteko bokazioz. Iazko urtearen amaieran plazaratu zuen, ordea, orain artean egin dituen bideoklipetan, atzeko lan gehien eskatu duena. Arriguri ekoiztetxearen esku jarri zuen *Habane-*



Goian, ØDEI; berak ekoizten ditu bideoak. Erdian Huntza; milioika ikustaldi dituen *Aldapan gora* bideoklipa. Eta azpian Ibil Bedi; *Anelidoak* kanta iragartzeko bideoa –abestiak ez du bideoklipik–.





Amoranteren –Iban Urizar–
Habanera abestiaren
bideoklipa.

ra kanta, eta berrirakurketa narratibo bat egin dute haiek, bideoz. Emaitza zoragarria iruditu zaio. “Konfiantza itsua nuen haiengan. Musikari bezala jar dezakezun diruak mugatzen du lana, noski, baina haiek izugarri inplikatu dira eta maitasun handia jarri diote”. Zentzu horretan, lotsa puntu bat, eta “eskertza infinitua”, biak sentitu ditu Urizarrek, bere kantaren bideoklipa gauzatzeko lanean aritu den jende kopurua ikusita. Aitortu du bideoklipak abestiari esanahi osagarri bat gehitu diola.

Besterik da bideoklipa ederra izateak ate gehiago zabaldu ote dizkion. Urizarrek ez du antzeman abesti hori beste batzuk baino gehiago entzun denik. Kontraesanak sortzen dizkio horrek. “Maite ditut bideoklipak eta niretzako ere badira, gordetzeko. Baina ez baduzu enpresa bat atzean, zure poltsikotik ordaindu behar duzu lan hori, eta zaila da neurtzea merezi ote duen edo ez. Sarean oso aktiboa bazara beharbada bai, baina nik berrogeita hamar urte egingo ditut eta ez nago halakoetarako”. Uxue

Amonarrizek ere bizi du gatazka hori. Dioenez, lehen nahikoa zen grabaketa estudioan zenbat gastatuko zenuen aurreikustea; orain, aldiz, bideoklip baten edo batzuen kostua gehitu behar diozu hasieran egingo duzun “zulo” horri. “Apustu bat da, zuzeneko gehiago edo handiagoak lortzeko itxaropenarekin egiten dena. Etor daiteke guri etorri zitzaigun *boom* hori, baina oso gutxitan da hala. Litekeena da zure lan guztia ia ezerezean geratzea”.

AUTOEKOIZPENETIK BIZIBIDERA

Bideokliparen atzean dagoen lan hori ondo ezagutzen du Odei Barrosok, eta badaki zer den ordaintzeko nahi baino ahal gutxiago izatea. “Musikariok ikusten ditugu bideoklip oso landuak, eta hori nahi izaten dugu guretzat, baina askotan, horrek zenbat balio duen edo zenbat lan duen jakin gabe”. Horregatik, eta beste batzuekin egindako saiakerek ez zutelako erabat asebate, ekin zion bere bideoklipak autoekoizteari. Animazioa oinarri duten lyric bideoe-

kin (kantaren letrak daramatzaten bideoak) hasi zen probak egiten, eta bideo konplexuagoetarako bidea egin du gero. Modu autodidaktan eta pixkanaka ikasi duenarekin ondu ditu ØDEI-ren kante-kin egindakoak. Hala lortu du, behingoz, bere izaera eta intentzioa islatzen duten lanak egitea. Hori bai, prekarioki. Kamera bakarrarekin eta aurrez eskarmeturik ez zuen adiskide batek lagunduta grabatzen ditu bere piezak. Garatu duen abilezia hori beste musikari batzuen zerbitzura ere jartzen du orain, enkarguz. Paradoxa horren korapiloetan bizi da: hein batean, besteei ordaintzeko adina ez zuelako hasi zen bere bideoklip propioak egiten. Eta orain, beste batzuentzako bideoklipak eginez ateratzen du bizibidea, gero, “denbora librean”, bere kanta egin ahal izateko. Edonola ere, uste du bere musikari jardunak nola, “militantzia puntua” duela besteentzako egiten duen lanak ere.

Barroso bat dator beste musikariek bideoklipen funtzioaz esan dutenarekin: “Nagusiki, hedapenerako tresna

dira". Baina har ditzakete bestelako esanahiak ere. Rapa egiten du Barrosok, eta erreferentziak Frantziako eszenan aurkitu ditu. Dioenez, bertako rapa irudiz eta bideoz lagundua sortu zen hastapenetatik, 1990eko hamarkadan. "Auzoa edo bizitzeko modua islatzeko nahi bat dago hor, ertzekoa den hori erakusteko gogoia, eta haustekoa auzo aberatsetako estetikarekin". ØDEI-rekin ere, bide horretara egin du Barrosok, elementu batzuk -janzkera edo jarrera, adibidez- bere eginez. Hori bai, berea ez den errealitate bat erakutsi gabe. "Ni ez naiz agertzen armekin edo diru pila batekin, edo ez naiz aurpegia estalita ageri, ez baitut inor nire atzetik".

DENBORA ZERI ESKAINI

Bideoklipak laguntzen du, hortaz, lan bat edo proposamen bat txoko gehiagotara eramaten. Ez da bide bakarra, ordea. Ibil Bedi taldeak apenas egin duen bideoklipik, eta hala ere, gaztetxe, areto eta irrati mordora heldu da haien musika. Egin dituzten ikus-entzunezko apurrak beste inoren proposamenak abiatu ditu edo haien kabuz egin dituzte, esperimentatuz eta sosik gastatu gabe. Ez da hautu kontzientezia izan, baina taldekideen artean denek ez dute ikuspegi bera.

Amets Aranguren ez da bideoklip zalea, eta ez zaio gehiegi interesatzen musikariaren ohiko lanetik kanpo geratzen den hori. Areta Senosiainek, aldiz, estimatzen ditu; bai, behintzat, ongi eginak direnean, baina orain artean ez dute sentitu horri ekiteko beharrik. "Kanpotik ematen du Ibil Bedi hartu duela hautu bat, kontsentsuz, ez bideoklipik egitekoa. Ez da horrela izan, baina egia da inoiz ez garela gehiegi saiatu. Eta saiatu garenean ere, ez da guk nahi bezala atera". Biak arduratzen ditu bi-

deok kantaren esanahia aldatu edo mugatzeak. "Badira abestiak esanahi anbiguoak dituztenak, entzuleak osatzen dituenak bere bizipen edo burutazioekin; ez genuke nahi bideoklip batek esatea zer irudikatu behar den".

Zenbat denbora eman dezake musikari batek bideoklip berri bat ontzen? Ibil Bediren *Anelidoak* kanta parafraseatuz, hori da Senosiain kezkatzen duena. "Ikusten badut norbaitek oso bideoklip landua egin duela, baina abestia eskasa dela, puntu asko galtzen ditu niretzat. Abestia ez bada ona, esan nahi du ez duzula zure lanaren partea ondo egin. Eta izan daiteke, agian, denbora beste gauza batzuetan igaro duzulako. Bideoklipak egiten, adibidez". Haiek, aldiz, inoiz gutxitan izan dute tarterik horri eskaintzeko, beste lanetan ari direlako astean zehar eta asteburuak zuzenekoetan edo kanta berriak sortzen ematen dituztelako. "Egia da zortea izan dugula: lortu dugu espazio bat, kontzertu asko, entzuleak... bideoklipik egin gabe. Horrek lan asko eta zeregin asko eman dizkigu, eta ez digu denborarik utzi bideoklipi edo halakoei begira egoteko". Hori bai, ez dute baztertzen, aurrerago, saiakera egitea; badute buruan ideia bat edo beste.

IRUDIAREN TIRANIA

Gizarte "ultrabisualean" bizi garela dio Aranguren, eta, talde gisa, ez daudela oso eroso haien irudia erabili behar horrekin. Zentzu horretan, hautu kontzientezia izan edo ez, pozik dago hartu duten norabidearekin. Badaki kantu berri bat bideokliparekin ateratzen bada jende gehiagok entzungo duela, baina ez du nahi jendeak horregatik entzuterik. Esaten da abestien hitzetatik harago ere badirela hautu politikoak, bada, horixe da Ibil Bediko kideena: ez dute bideo-

klipik egin nahi haiek egiten dutena "azkarrago eta gehiago" kontsumituko dela pentsatzen dutelako.

Bideoklip mordoak bat egin zituen Huntzak, baina Uxue Amonarriz ere ez dabil Arangurenen kezketatik oso aparte. "Gaur egun musikaria izatea ez da musikaria izatea bakarrik. Irudiaren birtatez proiektu bat saltzea ere bada". Huntzako kideei ez zaie irudiaren mundu hori gehiegi gustatzen, eta neurri batean horrek ito dituela dio. "Gizartea ere bada hori kontsumitu nahi duena. Zuk aukeratu behar duzu nola egin horri aurre, baina zaila da, zure lanaren zabal-kundea edo zure diru-sarrerak horren menpe egon daitezkeelako. Jaialdi askok, adibidez, Instagram edo Youtuben duzun harrera begiratzen dute gonbidatu edo ez erabakitzeke". Joera horrek zenbait musikari itzalpean utzi ditzakeela aitortzen du. Sentipen bertsua du Iban Urizarrek. "Bideoklipa da artefaktu garesti bat zure burua saltzeko balio duena. Orain, etengabe gure burua saltzen ari garenez, ia ezinbestekoa bihurtu da". Ez lioke, ordea, gaitz hori bideoklipari berari atxikiko: "Etengabe irudia saldu behar hori da tiranikoa dena".

Iritzi kontrajarriak ditu Odei Barrosok, ikustaldien eta kliken tranpak haserretzen baitu. Frantziako rap eszenan gertatzen den fenomeno bat kontatu du, azaltzeko: "Management etxeek euren bideogile propioak dituzte. Hartzen dituzte hiru gazte, bideo bana egiten diete, eta milioi bat ikustaldi azkarren gainditzen dituen kontratatzen dute, beste biak alboratuta". Hala ere, Barrosok bideoklipak egiten jarraitzeko asmoa du. "Nik ez dut konbentzituentzat bakarrik hitz egin nahi. Bideoak balio badu gure mezua eta izaera toki gehiagotara zabaltzeko, baliatu nahi dut, kontraesanekin bada ere". ●





Nor bere lekutik

AINHOA MARIEZKURRENA ETXABE

Ezer garrantzitsuagorik ez balego bezala jaso gaituzte Maite Aizpuruak eta Intza Alkainek Taba tabernako atarian. Mugak markatzen dituzten edo alde batetik bestera pasatzen uzten ez duten posteak alde banatan eta zu erdierditik, alfonbra gorrian bazina bezala. Hura zapaltzen duen oro da garrantzitsua, hau da, ikuslegoko partaide bakoitza, zu barne. Hori izan da hasieratik zabaldu duten bidea.

Bai, haiek dira aktoreak eta haiek protagonistak. Ikuslearekiko distantzia txikitu nahian eta pertsonala kolektibo egitearen ideia mahai gainean jarrita hartu duten erabakia dela esango nuke. Maite eta Intza. Lehen pertsonan zutaz hitz egiten ari direla irudikatzen asmoa ulertu dut, eta nik uste, edozein sentitu dela unereren batean identifikatuta.

Laguntasuna da gaia. Edo laguntasuna definitzeko ikuskera zabala. Edo zabaltzea, hori da asmoa. Harremanetako erak, gehiegizko ilusioak, frustrazioak, apegoa, dezepzioa, jelskortasuna, kontrola, mugak, desconfiantza, konfiantza, momentuak eta bakardadea, batez ere bakardadea,

ikuslea bere ondorioetara irits dadin. Bizitza ez al da bakardadea bere osotasunean? Harreman bat ez al da bakardadea bat gehi beste bat baino ez? Ez gara ezer eta dena gara eta bakoitzak bere lekutik hitz egin beharko luke. Guztiak gara lagunak eta era berean ez dugu lagunik. Harkaitz Canoren hitzak errepikatuta: "Bizitza lagunak galtzen zoazela onartzea da". Maitek eta Intzak betiko lagunak gonbidatu dituzte antzokira, baina oraingoan ere ez dira azaldu. Publikoko jendeari egiten diote, orduan, laguntasunaren gonbita.

Txikitatik elkar ezagutzen duten bi pertsona haien harremanaz hitz egiten ari zaizkigu. Anekdotak ugari kontatzen. Badu penatik eta baita pozetik ere. Badu beldurretik eta haserretik. Badu errerealismotik, baita surrealismotik ere. Bi aktore haiek ezagutzen dituenak sobera daki bihurrikeria eta lotsagabekeria ez dela haien obra batean faltako, absurdoak leku pribilegiatua izango duela eszenan, barrea zergatik eragin dizun ulertuko ez den zerbait. Era berean, eta honekin bat eginik, kontrastea bilatu dute: gai sinple batek dituen korapiloak

PROMESA BERDINA EGIN DIEGU LAGUN GUZTIEI

NOIZ: maiatzaren 6an

NOIZ: Poltsiko Antzerki Jaialdian (Taba, Egia, Donostia)

EGILEAK: F taldea

ZUZENDARIA: Maite Aizpuru

AKTOREAK: Maite Aizpuru eta Intza Alkain

erakustea edota alfonbra gorriko harreman pijaman egitea.

Antzezlan hau 2024ko Donostiako Poltsiko Antzerki Jaialdiko sariduna izan da. Espazio txikietan antzeztzen diren formatu txikiko antzezlanak dira jaialdian protagonistak, hainbat taberna eta txokotan aurkezten direnak. 1991. urtean izan zen lehen edizioa eta aurten bost estreinaldi egongo dira, guztiak euskaraz, hori baita berezko helburua: euskaraz egiten diren formatu txikiko antzezlanak bultzatzea. Epaimahaiak *Prosema berdina egin diegu lagun guztiei* antzezlanean jarri du konfiantza, azkenaldian euskal antzerkian pilpilean dauden gaiak segida emanda. Ikusle modernoak mugitzen duen gaia hizpide edo hain modernoak ez den ikuslea hezteko asmo hauskor edo progresista bat. ●



LIBURUA

Judutarren jazarpena gure artean



TXOKOLAT
GAIZKA AROSTEGI
 ELKAR, 2024

XABIER ETXANIZ ERLE

Afaltzen ari zirela entzun zuten ate hotsa. Zeruko izarrek sabbata heldua zela zioten”, horrela hasten da Gaizka Arostegiren nobela labur hau, Gestapoko “zakurrek” Sara eta bere gurasoen etxeko atea jotzen duten unean. Irakurleak ondorioztatuko zuen moduan, Bigarren Mundu Gerran girotutako nobela dugu, 1944ko urtarrilean Ipar Euskal Herrian kokatua, Baionako Santizpiritu auzoan. Gurasoak preso eraman ondoren, Sararen ihesaldia kontatzen du.

Abenturazko nobela historikotzat har dezakegu *Txokolat*; dramatzat ere bai, baina baita adiskidetasunaren eta konpromisoaren aldeko obratzat ere. Izan ere, Sarak hegoalderako bidean Maddiren eta bi mutilen laguntza izango du,

beren burua arriskuan jartzen duten neska-mutilen laguntza.

179 orrialdeko nobela 53 kapitulutango banatuta; alegia, kapitulu laburrez osaturiko obra da, eta horrek arintasuna eta bizitasuna ematen dio lanari. Irakurlea egoera, gertakari eta ekintza batetik bestera doa orrietan aurrera egin ahala, eta Sararen larritasunean, salbatzen den ala harrapatzen duten jakin nahian ibiliko da. Hori guztia idazkera zaindu eta biziaz, elkarrizketa ugariz eta deskribapen laburrez osaturik. Ez gaitu, beraz, harritu behar irakurtzen hasi eta gutxira liburuko azken orrietan aurkitzeak.

Gertakari larri horiez hitz egiten dugunean, askotan ahaztu egiten zaigu gure artean ere nazien jazarpena ja-

san zuten judutarrak egon zirela. XVI. mendean Nafarroatik Baionara aldera ihesi joan ziren haien ondorengoek nazismoaren garaian bueltako bidea egin behar izan zuten.

Alde horretatik, nobela egokia da; bizia, entretenigarria, gure historiaren pasarte gogor bati buruzkoa, baina baita pertsonok dugun txarrena eta onena erakutsi ahal diguna.

Nobelako amaierak irakurlearen irudimena bultzatzen du; amaiera irekia da, Sara Bidasoa ibaia zeharkatzeko prest, “etorkizuna beste ertzean zegoen. Bere zain”. Irakurleak berak imajinatu beharko du nolakoa izango den Sararen geroa... ala idazleak bigarren nobelan kontaktu ahal izango du. Hala izango ahal da! ●



MUSIKA

Freskotasuna eta barietatea



E. MORENO ESQUIBEL

MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

Azken denboraldietan ohikoa izan den moduan, OLBEk errezitaldi polita prestatu du denboraldiko azken titulurako, *preludio* gisa balio izan duena.

Opera eta zarzuela nahastea ideia bikaina izan da. Izan ere, askok uste dugu ez litzatekeela ideia txarra izango noizbait *genero txikia*-ren tituluren bat sartzea OLBEren denboraldietan.

Aldi honetan, ikusi ahal izan dugu zein ondo egokitu diren bi bakarlarien ahotsak eta kantatzeko moduak bi estilo horietara. Emaitza izugarri atsegina eta arina izan da.

Nobedade gisa, Maite Marín akto-reak errezitaldiko pieza guztiei jarraipena ematen dien gidoia antzestu du, asmo komikoarekin. Egia esan, elementu hori sobera egon da eta ez dio ekarpen handirik egin saioari.

Juan Jesús Rodríguez baritonoak ahots handia eta segurtasuna erakutsi ditu errezitaldi osoan. Nazioarteko baritono verdiar onenetakotzat jotzen da, eta egiaztatu ahal izan dugu zergatik kontsideratzen den horrela. Bai Leoncavalloren *I Pagliacciren Si puo?* arian, bai Verdiren *Don Carloren Io morirò, ma lieto in core* kantan, kantu dotorea eta ahotsaren biribiltasuna erakutsi ditu.

Gaueko beste protagonista ere, Graciela Moncloa sopranoa, esperotako mailan egon da. Interpretatu dituen bi opera ariei esker –*O mio babbino caro*, *Gianni Schicchirena* (Puccini), eta *Sola, perduta e abbandonata*, *Manon Lescautena* (Puccini)–, emozioz beteriko abeslaria aurkitu dugu, bere ahotsa ezin hobeto egokitzen baitzitzaion Pucciniren paperei.

Bigarren zatian, zarzuelari eskainitakoan, interpreteen freskotasunak eta

OLBEk antolatutako opera eta zarzuelako errezitaldia. **Bakarlariak:** Juan Jesús Rodríguez (baritonoa), Graciela Moncloa (sopranoa). Piano-jotzailea: Manuel Burgueras. **Narratzailea:** Maite Marín. **Egitaraua:** Leoncavallo, Puccini, Verdi, Turina, Serrano, Torroba, Chapí eta Sorozabalen lanak. **Lekua:** Euskalduna Jauregia (Bilbo). **Data:** apirilaren 20a.

generoa menderatzeak ikusleei asko gozarazi die, zalantzarik gabe.

Sopranoa eta baritonoa nabarmendu dira interpretatu dituzten erromantzeetan, baina onena programako azken duetan iritsi da. Bi bakarlariak bikain aritu dira Chapíren *Por qué de mis ojos* (*La Revoltosa*) eta Pablo Sorozabalen *Hace tiempo que vengo al taller* (*La del manojo de rosas*) lanetan. Azken honetan bereziki interpretazio harrigarria izan dute Graciela Moncloak eta Juan Jesús Rodríguezek. Nolako gogoia piztu zaigun guztioi zarzuela eder horren –Sorozabalen harribitxi bat– antzezipen on batera joateko!

Propina gisa, Rodríguezek Guridiren *Sasibil, mi caserío* erromantzaren bertsio dotorea oparitu digu. Amaiera ederra. ●

Nazio ala imitazio

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Adi Txetxu, ezusteko emaitza daukagu-eta Urritxen: Jose Luis Rodriguez Zapatero Espainiako presidente ohiak esan ez du ba euskal gatazkaren amaierarako “akordio esangabe bat” dagoela, “Ostiral Santukoaren antzekoa”? Madrilgo Ateneoan Teresa Whitfieldekin izandako solasaldiaren kronika mamitsua idatzi du *Berria*-n Iosu Alberdik, xehetasun gehiago nahi duenarentzat –nahiz eta Zapaterok, uretara salto egin ondoren, berehala jaso zuen toalla ospa egiteko, “ezin dut gehiago esan” batekin–.

Niri, dena den, asuntu honek transmititzen duen imajinarioa interesatzen zait. Konkretuki, “antzekoa” horri tiraka gure buruaz egin daitekeen erretratua.

Zeren aber, ahaztu samarra daukagu igual, baina Euskal Herriko gatazkaren eta Irlandakoaren artean parekotasunak bilatzea kasik kirol nazionala izan zen paraje hauetan zenbait urtez. Konparaziorako elementuak aurkitzea ez zen zail-zaila, hori ere egia da, baina iruditzen zait uneren batean jendea gehiegi animatzen hasi zela “hemen Irlandan bezala” lemarekin; eta konturatzerako, gauza ez zen bakarrik Arnaldo Otegi “euskal Gerry Adams” ote zen: begi hauekin ikusia nago Fernando Barrrena “euskal Martin McGuinness” gisa aurkezteko ahaleginen bat, pentsarazi zidana pertsonaia guztiak plagiatu behar bagenizkien, ederki kosta behar zitzaigula “euskal Van Morrison” bat aurkitzea.

Enfin. Irlandarrak kopiatzeko moda pasa zenean, katalanak kopiatzea bilakatu zen *trendy*. Beste rolo bat dudarik gabe, modernetia goa, jubiletia goa; giza-kateak, *We Are the World*, *We Are the Children* espiritudun mobilizazioak, castellersak jai eta aste. Baina, asko ahalegin du arren, ezin lortu imitazio perfekturik orduan ere: batzuek “euskal Puigdemont” bat sumatzen zuten faltan; beste batzuek “euskal CUP” bat. Azkenean “euskal ERC” izan da emaitza hoberenak eman dituen produktua, baina klaro, joan den igandean Pere Aragonèsek izan duen deskalabruaren ondoren, nik uste imitazio-krisi potolo baten atarian gaudela.

Eta ez da konponduko, noski, autofabrikatutako kontzeptu berriren batekin. Keba. Itxaron egingo da imitatzeko moduko beste zerbait muturren aurretik pasa arte. Eta orduan beste zera horren euskal bertsioa izateko estutu beharko da burua, hori baita, antza denez, senak agintzen diguna.

Hemen gauza berriak asmatzea ez da asko saritzen. Eta hala ere, norbaitek kontu horietaz paso eginda bide propio interesgarriren bat abiatzen badu, lasai, berehala agertuko baita norbait arrastoan sartzerat: “PJ Harvey euskalduna” etiketa zeeenbat erabili zen Anarirekin, duela gutxi Jon Urzelaik gogora ekarri duen moduan; Bide Ertzeaneko Ubeda anaiak “Gallagher euskaldunak” omen ziren; eta Mikel Laboa “euskal Bob Dylan”; eta Lourdes Iriondo “euskal Joan Baez”; eta abar marmar.

Kasik mundua ulertzeko modu bat da: ez gaude hemen gure kankak jotzeko, erromeria-taldea izatea da kontsigna. Euskal Herria Elvisen imitatzailen lehiaketa bat da, *Blade Runner*-eko erreplikantez bete; eta irabazlea Fifa bideo-jokoko futbolari bat, surimiz egindako “txaka pintxo” jasoko duena saritzat. Eta akordio bat, “Ostiral Santukoaren antzekoa”. ●



ZIBURUKO 5. LIBURU ETA DISKO AZOKA

EKAINAREN 1EAN



ANTOLATZAILEAK



PARTAIDEAK



ZIBURU
CIBOÛRE

100 URTE Moderno

eta / edo

garaikidea

Marta Cárdenas, *Historietaren etena*, 1975. Margoa © Marta Cárdenas, VEGAP, Donostia / San Sebastián, 2024

Antolatzailea :



Erakunde babesleak:



SAN TELMO MUSEOA

Erakusketa, 2024ko apirilaren 13tik aurrera